


ANTONIO ZAVALA

ARRANTZALEEN BIZITZA



BO-2976

J0625

ARRANTZALEEN BIZITZA

AUSPOA LIBURUTEGIA
(133)

EDITORIAL AUSPOA

**Plaza de Santa María, 2 — Teléfono 66 16 12
Tolosa (Guipúzcoa)**

ANTONIO ZAVALA

ARRANTZALEEN
BIZITZA

AZKUE BIBLIOTEKA EUSKALTZAINDIA BILBO
2155
2 JUL. 1979
1009647

AUSPOA LIBURUTEGIA
(133)

© Auspoa Liburutegia - Tolosa (Guipúzcoa)
Imprimatzaille: E. Itxaropena. S. A. Bitor Pradera 2, Zarautz
Depósito Legal: S. S. 371/78
I S B N 84 - 7158 - 057 - 8
Agosto - 1978

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
(1854) Balearenak.....	11
Bertso berriak. (Itxasoko ibillera)....	23
(1878) Zarautz'ko balearenak	29
(1878) Kantabria'ko arrantzaliak.....	75
(1879) Arrantzaliarenak	87
Arrantzaliaren bizitza.....	97
(1901) Bertso berriak. Oriyo'ko baliari ja- rriyak	103
(1901) Bertso berriak. «Ogeigarren sigluan lenengo urtian...».....	121
(1905) Bertso berriak. Orkolaga jaunari....	127
(1906) Bertso berriak. Erandio'rako jarriak..	141
(1908) Arraizalien bizitza	151

ITZAUREA

Bertso-liburu onetan, baleak, arrantzaleak, galernak, itoak, eguraldia eta beste zernai gauza agertzen da. Baiñan, egia esateko, gai bakarra du: itxasoa. Obeto esateko, itxasoak eta gizonak alkarrekin darabilkiten burruka. Ortik izenburua, *Arrantzaleen bixitza*, oiek egiten duten zera orrek, askotan izen ori merezi ez badu ere.

Leen ere badegu gai onetako bertsorik *Auspoo*'n argitaraturik. Baiñan orain artekoak egille ezaguna zuten. Auek, berriz, aita nor duten ez dakigu. Orretzaz gaiñera, Gipuzkoa'ko bertsoak dira auek. Bizkai'koak eta Bidasoa'z beste aldekoak, beste aldi baterako utzi ditugu.

Bertso auek kontatzen eta aitatzen dizkiguten gertaerak, erdal egunkarietan ere azaltzen dira batzutan. Mesede ederra guretzat, bertsoak obeto ulertzeko asko laguntzen baitute. Olakoetan, egunkari oiek diotena onera aldatu eta bertsoen ondoren ezarri degu. Baita beste zernai argibide bildu degunean ere.

Doñu batzuk baditu liburu onek. Oiek, bat izan ezik, guk magnetofonoz jasoak dira, eta Manuel Yaben adiskideak solfeoz papereratuak.

Eskerrak ematen dizkiogu Zarautz'ko Erriko Etxeari, zarauztarrak azken balea arrapaturik aurtan eun urte zirala-ta liburu au argitaratzeko egin digun laguntzagatik.

Euskal nekazaria, arrantzalea baiño bertso-jartzalle oparoagoa izan da noski. Baiñan berare ere lo egon ez dala, liburu onek ederki erakutsiko du.

(1854)

BALEARENAK

Bale bat arrapatu zuten Donostia'ko arrantzaleak, 1854 urtean. Ala adierazten digute bertso auek. Lau iturritatik osatu ditugu.

Lenengo, Ondarroa'ko Jose Mari Etxaburu'k zortzi bertso bialdu zizkigun: 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 11'garrena.

Bigarren, Ondarroa'ko *Euzkaltzale Bazkuna* taldeak, Jose Ariztimuño *Aitzol* zanari, makinaz idatzita zortzi bertso bialdu zizkion orri batean: 1, 3, 4, 5, 8, 9, 10 eta 11'garrena.

Irugarren iturria, Azkue'ren *Cancionero Vasco* kanta-bilduma, 655 zenbakian. Onek iru bertso: 3, 4 eta 9'garrena. Ondarrabia'n ikasi omen zituan; baiñan noren aotik ez du esaten.

Laugarrena, M. Ciriquiain-Gaiztarro: *Los vascos en la pesca de la ballena*, Zarauz, 1961.
Onek lau bertso: 8, 3, 4 eta 9'garrena.

Bati edo besteari geien gustatzen zitzaiguna artuz idatzi ditugu liburu onetarako bertsoak. Guk jarri degun erarekin bakoitzak zer aldaketa dituan, bertsoan atzetik agertuko degu.

Doñua, Azkue'ren kantutegitik artzen degu:



- 1/ Milla zortzireun da
cincuenta y cuatruan,
gure donostiarrak
baletara juan.
Orrelango konturik
zeñek du goguan?
Etzitzraigun aztuko
denbora galduan.

2/ Donostia'ko jende
prestu ta noblia,
Gipuzkoa guzian
parerik gabia;
zuek, getariarrok,
gauz onen zaliak,
besigua zala uste al
zenduten balia?

3/ Luis *Gaiztoa*'k emanik
lenengo arponada,
balia arrapatzeko
txit gizon ona da;
estimatzekoa zan
alako jornada,
beratzi milla ertial
bazuen jornala.

4/ Jose de *Karamelo*'k
bigarren kolpian,
ederki portatu da
bere suertian;
baliari odola
bizkarra betian,
etzitzaion gelditu
ito zan artian.

5/ Ondora joan zitzagun
balia il zanian,
etxera etorri giñan
agiri etzania;
getariarrak artu
azaldu zanian,
ez genioten kendu
lenengo esanian.

6/ Besteren gauzarekin
gizonen sasoia,
ortikan ere bada
bertso baten gaia;
petxutikan sartuko
ziola arpoia,
kulpaga eiago ez ta
au da arrazoia.

7/ Orixe da modua
gizona galtzeko,
petxua zabaldua
Luisek sartzeko;
paraje sagraduan
kolera jartzeko,
ijeniyo txit ederra
zeruan sartzeko.

- 8/ Zuek ekarriagatik
deseua ugari,
utzi ezaiozute
gure baliari;
ama igesi jua da
umia da ori,
segi egiozute
nai dezunak ari.
- 9/ Jose Manuel *Sereno*'k
indarrak baditu,
aren zartarakuak
Getaria'n aditu;
jente guzia orduan
emen zan arritu,
izugarrizko famak
ark ekarri ditu.
- 10/ Tripulazio guzia
zan guztiz abilla,
jente balientia,
indarretan fiña;
patroi entenditua,
ongi itz egiña,
guziak egin zeben
euren alegiña.

11/ Getariar oriek
etziran izutzen,
Antigua'ra juanda
balia ikusten;
pagatu gabetanik
etziuen uzten,
sartu baño lenago
bi txanpona zuzen.

Aldaketak:

Jose Mari Etxaburu, Ondarroa: 3/6: alako arponada; 11/1: Getariarrak oiek; 11/5 paga biar zuenik; 11/6: etzuen pentsatzen.

Euskaltzale Bazkuna, Ondarroa: 1/5: one-lango konturik; 1/7: etzaiotela aztuko; 3/5: estimatzekua da; 3/6: alango jornara; 3/7: bederatzi milla real; 3/8: bazuten jornala; 4/4: beraren suertian; 11/8: bi txanpona zuzen.

Azkue, *Cancionero Vasco*, 655: 3/1: Luis gaiztoak eman; 3/5: bederatzi milla erreal; 3/6: zutela jornala; 3/7: estimatzekoa zan; 3/8: orduko arponada; 4/1: Jose Karamelo zan; 4/3: ederki portatu zan; 4/6: bizkarren betean; 9/3: aren zartadakoa; 9/5: jendea egin zuen; 9/6: orduan arritu.

M. Ciriqian-Gaiztarro: *Los vascos en la pesca de la ballena*, Zarauz, 1961: 3/1: Luis Gaiztubak eman dik; 3/6: alango arponada; 4/3: ederki portatu zan; 8/1: Zubek getaria-

rrak; 8/2: besigo ugari; 8/3: utzi ezazute; 8/7: segi ezaiozute; 8/8: nai badezu ari; 9/1: Joxe Manuel Shereno; 9/3: aren zartadakua; 9/8: ekarritu.

* * *

Gero ere esango degunez, 1878 urtean il zuten balea zala-ta, auzitara jo zuten zarauzta-rrak eta getariarrak. Auzi orren paperak esku artean izan ditugu. Paper oietan, 1854'ko bale oni buruz argibide asko ematen da. Galdera auek prestatu baitzituzten Zarautz'ko eta Orio'ko txalupa-patroien lege-gizonak:

«25: Cómo es cierto que habiendo aparecido en el año de mil ochocientos cincuenta y cuatro en las aguas del punto llamado la Zurriola, jurisdicción de la ciudad de San Sebastián, un ballenato de unos veinte y seis pies de longitud, los marineros de dicha ciudad salieron en persecución del cetáceo, y habiendo logrado clavarle dos arpones, fueron arrastrados por él a la concha o bahía de aquel puerto, donde se presentó después otra ballena de mayores proporciones, que se creyó fuera la madre del ballenato herido, la cual, colocándose entre él y sus perseguidores, rompió e hizo pedazos todas las amarras o estachas que lo sujetaban, pero estando ya muerto, se fué a fondo.

26: Cómo es cierto que llegado el anochecer y muy fatigados los marineros por la prolongada lucha que habían sostenido con ambos cetá-

ceos, se retiraron al puerto dejando apostados en el punto llamado caya-arriba dos vigías o centinelas encargados de observar si el cetáceo salía a flor de agua durante la noche.

27: *Cómo es cierto que antes del amanecer del día inmediato se presentó en el mismo sitio una lancha de Guetaria, y haciendo presa en el cetáceo muerto el día anterior por los Sansebastianos (sic), se lo llevó, cuando vista por los vigías dieron aviso a los verdaderos y legítimos aprehensores de la ballena, quienes destacaron inmediatamente una lancha que alcanzando a la remolcadora de Guetaria, la intimó que aquella presa debía volver a San Sebastián, a lo que se negaron los guetarianos, superiores en número, diciendo que «la fuerza sería el juez que resolviera la cuestión», y si se quería un arreglo, había de ser bajo la condición, y no de otro modo, de que se llevara primero la presa a Guetaria.*

28: *Cómo es cierto que, llegando en esto otras dos lanchas de San Sebastián, y reiteradas la intimación y la negativa, cortaron las amarras con que los guetarianos llevaban atada la ballena, y recobrada de este modo por los Sansebastianos, a pesar de haberles amenazado aquellos con sus dardos, la condujeron a la parte de la playa de San Sebastián, inmediata al punto llamado la Antigua, donde la colocaron, habiéndoles seguido hasta allá los guetarianos.*

29: *Cómo es cierto que, conservando todavía la ballena los dos arpones con que los ma-*

rineros de San Sebastián la habían herido y muerto, interrogaron a los de Guetaria, mostrándoselos ante el inmenso público que en aquel sitio se había reunido ya: «de qué procedencia eran aquellas armas»; y habiendo guardado los tripulantes de la lancha de Guetaria el más absoluto y profundo silencio, quedó de este modo terminado el suceso.

30: Cómo es cierto que la última ballena capturada en la Costa Cantábrica desde el Cabo Higuer al Machichaco, hasta que los marineros de San Sebastián pescaron en 1854 la de que acaba de hacerse mérito, lo fue por los marineros de Zarauz a principios del presente siglo, y estuvo expuesta y fue exhibida y utilizada en la playa o arenal del mencionado puerto de Zarauz.»

Lenengo, Donostia'ko Jose Manuel Ezenarro'ri egin zizkioten galdera oiek. Ona emen aren erantzunak:

«En la Ciudad de San Sebastián a nueve de Abril de mil ochocientos setenta y nueve...

...A la veinte y cinco dijo: que es cierto su contesta, y lo sabe por ser el declarante uno de los patrones de tres lanchas que consiguieron coger el ballenato a que se refiere la pregunta.

A la veinte y seis dijo: que también es cierta su contesta y lo sabe por la misma razón.

A la veinte y siete dijo: que del propio modo es cierta su contesta y lo sabe por ser el declarante el que primero fue con su lancha y

tripulación a rescatar el ballenato de que se habían apoderado los guetarianos.

A la veinte y ocho dijo: que es cierta su contesta y lo sabe por la misma razón.

A la veinte y nueve dijo: que del propio modo es cierta su contesta y lo sabe de ciencia propia.

Interrogado al tenor de la repregunta única dijo: que tiene oído que sucedió así, pero no lo sabe con certeza...»

* * *

Nikolas Olaizola'ren erantzunak:

«... A la veinte y cinco dijo: que es cierta su contesta, y lo sabe por ser el declarante el que clavó el primer arpón al ballenato a que se refiere la pregunta y por haber estado presente hasta el oscurecer, hora en que se retiraron todos.»

Eta gaiñontzeko erantzunak, aurrekoarenak bezelaxe izan ziran.

* * *

Luis Subia'ren erantzunak:

«... A la veinte y cinco dijo: que es cierta su contesta, y lo sabe por ser el declarante el que clavó el segundo arpón a la ballena por que se le pregunta y por haber presenciado todo lo demás.»

Ta beste erantzun guziak, aurrekoen antze-koak.

* * *

Testiguanza auek eta bertsoak, gaur ditugun bezela beintzat, ez datoz oso batera. Testiguen esanez, Nikolas Olaizola'k sartu zion lenengo arpoia, eta Luis Subia'k bigarrena. Bertsoak diotenez, berriz, Luis Gaiztoak eman zion lenengo arponada, eta Jose de Karamelo'k bigarren kolpia.

Luis Gaiztoagatik oar au egiten du Azkue'k:

«...fue un ondarroés que vivió en Fuenterrabía hace unos sesenta y cinco años.»

* * *

Bertsoen aitamena ere egin zan 1878'eko auzian. Zarauztarren lege-gizonak onela esan zuan:

«...podríamos tal vez ofrecerles para su solaz y divertimento... alguno de los ejemplares de un gracioso romance vascongado a que dio margen la ocurrencia; castigo único que por medio del brazo secular de sus coblakaris acostumbra imponer este grave, severo y morigerado país a los que fundan una ridícula vanagloria en el prurito de engalanarse con ajenas plumas...»

* * *

Donostia'ko *Acuarium* deritzaion ortan, kua-dro batean sartuta eta ormatik zintzilik, bale

onen litografia dago, eta beraren neurriak ere ematen dira. Onela dio:

«Copia al natural del BALLENATO muerto en la playa de San Sebastián el 17 de enero de 1854, hecha por las indicaciones y dirección del Dor. Monedero.

<i>Dimensiones:</i>	<i>Pies</i>	<i>Pulg.</i>
<i>Longitud de la punta del hocico al extremo de la cola</i>	26	9
<i>Circunferencia tomada por lo más grueso del cuerpo</i>	17	5
<i>Altura sobre el suelo al par de los espiráculos</i>	6	
<i>Ancho de la cola desde una punta a otra</i>	9	
<i>Distancia de los ojos a la punta del hocico</i>	5	2
<i>Altura de la mandíbula inferior en su parte central</i>	3	1
<i>Largo de las aletas</i>	3	9
<i>Anchura de las mismas</i>	2	6
<i>Circunferencia de la lengua</i>	8	2

Bale-zorri baten iduria ere badu, adierazpen onekin: «A: representa de tamaño natural uno de los piojos de Ballena de los que tenía muchos en la cabeza y parte superior del cuerpo.

Ta litografia ori nork egin duen: «Litografía de Gordon Hermanos, San Sebastián.»

BERTSO BERRIAK

(ITXASOKO IBILLERA)

Bertso auek, Jose Manterola'ren bildumatik ditugu. Egillearen eta moldiztegiaren izenik gabeko bertso-paper bat da. Manterola'k bilduma ori 1877'ean-edo osatu baitzuan, eungarren urtea betetako bertsoak izango dira. Bere burua ere soka sartzen baitu, bertsolaria arrantzalaren bat izango zan. Bigarren izenburua, gerok erantsia da, irugarren bertsoatik artuta.

- 1/ Bertso berri batzubek
asi naiz notatzen,
txit komeni dirala
zait iduritutzen,
alegre daudenak
kantatu ditzaten,
biyotz biguñekuak
dira lastimatzen.

2/ Portutikan kalara
maiz egiñ salida,
noiz etorriko geran
ez jakiñ errira;
gero jende guziya
murallan begira,
aiziak muratutzen
asitzen badira.

3/ Itxasoko ibillera
da negargarriya,
or ikusitzen degu
istillu gorriya;
sikiera atera nai
jateko ogiya,
mantendu biar geok
eta familiya.

4/ Beti ez naiz fiyätzen
itxasuagana,
bañon aprotxa zagun
denbora ona dana;
juan egiten gera,
etorritzen lana,
orrek beretzako du
deskuidatzen dana.

5/ Aizia gogorra ta
olatu aundiya,
auxen da ofiziyo
lastimagarriya,
Jangoikuak aprepos
guretzat jarriya,
arren itzazu, Jesus,
miserikordiya.

6/ Mielka ta putanua
eta kolayua,
oiek ematen dute
ernegaziyua;
klase bastua eta
merke preziyua,
beitak pagatutzeko
zer alebiyua!

7/ Treza eta kordela
guziyak artuta,
zerbait datorrenian
gu ere poztuta;
eriyuak gauz onik
beñere ezta-ta,
gero etxerakuan
arraiak aztuta.

8/ Maiz jua tabernara,
bestela kafian,
naiz tratu txarrak artu
noizik bakoitzian;
dirubak konsolatu
arraia saltzian,
danak aztutzen dira
errira etortzian.

9/ Arrantzale jendia
beti dabill justu,
saiatubagatikan
eziñ aberastu;
portura etorrita
muallara ustu,
naiz pisura orduko
lautatik bat ostu.

10/ Mariñel ta arrantzale
guziyen legia:
nor bere ofiziyuan
korajez pelia;
itxaso sagraduba,
dudarik gabia,
amaika biar duben
gizon-jantzallia.

11/ Txalupa bolinara
asitzen danian,
aiziak indar asko
du itxaso gañian;
kanpotik ura sartu,
barrenen lanian,
bestela etsai gaxtuak
laister du mendian.

12/ Tranzian gauza asko
zaigu gogoratzen,
besterenak ez gaitu
eskarmentatutzen;
kanpotik zaparrarak
maiz dira sartutzen,
gu uda eta negu
bañubak artutzen.

13/ Beti limosneruak
dira arrantzaliak,
gauza partitzeko
kupira gabiak;
eskatu egiten du
oraingo jendiak,
muallara juaten
diraren andriak.

14/ Denbora txarrak badu
birian atxitzen,
jipoia seguru du
ezpada mudatzen;
or dabillen mutilla
asko da penatzen,
toki peligosua
ezta errex guardatzen.

15/ Korajetsu dabilta,
atera kontubak,
batzubek egon arren
eskarmentatubak;
izutzen ez dubenik
ez da olatubak,
anparatu gaitzala
gurutze santubak.

16/ Orra adierazi
orren informiak,
egiya ziertuak
dudarik gabiak;
nik enpleatu ditut
abillidadiak,
nai dubenak paratu
ditzala obiak.

(1878)

ZARAUTZ'KO BALEARENAK

1878'eko Otsaillaren 11'an, bale bat azaldu zan Zarautz'ko uretan, eta zarautzarrak, getariarrak eta oriotarrak alkar artu eta il egin zuten.

Il orduko, ordea, alkarrekin zapuztu egin ziran: zarautzarrak eta oriotarrak getariarren aurka. Zarautzar batek ogei ta bi bertso jarri zituan. Gaur egunean ere, oso bertso ezagunak dira.

Lenengo, bi doñu jarriko ditugu: Patxi Larrañaga'k kantatua lendabizikoa, eta Santos Leunda eta Santos Azpeitia'k kantatua bigarre-na. Ondoren, bertsoak. Eta irugarren, bertso aueri buruzko zer esanak, gauzak nola gertatu ziran eta abar alegia, oraingo ontan iturri ugarriak izan ditugu eta.

The first system of music consists of five staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of one flat (Bb), and a 2/4 time signature. The music is written in a single melodic line with various rhythmic values including eighth and sixteenth notes, and rests. The second staff continues the melody with similar rhythmic patterns. The third staff introduces some sixteenth-note runs. The fourth staff continues the melodic line. The fifth staff concludes the system with a double bar line.

* * *

The second system of music consists of five staves. The first staff begins with a treble clef, a key signature of two sharps (F# and C#), and a 2/4 time signature. The music is written in a single melodic line. The second staff continues the melody. The third staff introduces some sixteenth-note runs. The fourth staff continues the melodic line. The fifth staff concludes the system with a double bar line.

1/ Milla zortzireun da
setenta y otxuan,
Zarautz'tik txalupa bat
baletara juan;
Anton getariarra
lagun artu zuan,
gizon balientia
ori zalakuan,
obe zuan Kaperok
ikusi ez bazuan.

2/ Lenengo suertia
zan Antonentzako,
badira motibuak
katak jarritzeko;
aguro pronto jarri
ziran agintzeko,
ori basta izan zan
bazterrak nasteko,
an etzan korajerik
arpoia sartzeko.

3/ Lenengo estokada
zarauztarrentzako,
asko bildurtu gabe
oriek zuten jo;
baita esnatu ere
bazeguen ere lo,
kuadrilla ederra giñan
eule ta errero,
ongi portatua da
Jabier Kapero.

- 4/ Arpoia eskuan da
korajez beterik,
Roke Etxabe zegon
aurrian zut-zutik;
ez al zaio azaltzen
balia urpetik,
ezarri zion firme
bizkar-ezurretik,
jendiak esan zuan:
«Orrenak egin dik!»
- 5/ Ordubi t'erdietan
arpoia sartuta,
marru egiten zuan
arek miñ artuta;
getariar oriek
danak bildurtuta,
kanpuan egon ziran
kobardiatuta,
uste gendun zeudela
danak erituta.
- 6/ Mutriku'tik txalupa bat
bertara etorri zan,
sinistuko etzuten
an izan ez bazan;
«Kobarde!» diadarka
gizon bat asi zan,
oso mantso mugitu
sapo baten gisan,
oiekgatik balia
oraindik bizi zan.

7/ Getari etorri zan
arpoiaren galdez,
ikusten zitulako
txalupa aiek trabes;
baietz agindu giñon
geure borondatez,
Antonek albotikan
ematerik nai ez,
naiz berak baliari
batere sartu ez.

8/ «Antonek arrazoia
emanagatikan:
«etzazutela egin
orrelakorikan»,
nere lagunak, fuerte
tira sokatikan,
aguro azaldu dedin
balia urpetikan,
korajez tira arpoia,
sartu gogotikan.»

9/ Ikusi dutenian
balia ur-mintzian,
bi arpoi sartu dizke
gogor biotzian;
indarrak aplakatu
odol ixurtzian,
ez da geio esnatuko
arnasa aitzian,
derrepente il zaigu
ia illuntzian.

10/ Getari'ri lagun bat
putzura bulkatu,
desgrazia aundi bat
iya zan gertatu;
gutxigatikan ez du
baliak tragatu,
nik gezurra badiot
danari galdetu,
aguro jango zuan
ez bazuten artu.

11/ San Pelaiok milagrua
aguro egin du,
burua edo mingaña
guk giñon agindu;
kukutxuak soñua
aldrebes jo digu,
testamentaio Anton
baliak jarri du,
miñik ez dio eman da
ederki egin du.

12/ Aguro egin da ori
aziendaren jabe,
guk probetxurik ez ta
beretzako kalte;
oju egiñaz: «Ni naiz
emengo errege»,
Elkano'ren onduan
ipintzen badute,
gizon balientetzat
irukiko dute.

13/ Molla gañera ginduzten
iru lagun iyo,
gure konbeniyuak
eztu asko baliyo;
gizonak egitia
ainbeste traiziyo,
egunen batian orrek
igerriko diyo,
zein dan jakin zazute
Jose Gregoriyo.

14/ Mediku eta apaiz,
bestia alkatia,
bale-sokai tiraka
bazan an jendia;
gizon armatuakin
garbitu bidia,
lapurrari bezela
iriki atia,
preso artu gaituzte
geu eta balia.

15/ Kontxan laga biarrian
mollan dute sartu,
aziyo orrengatik
ez giñaren poztu;
arrika ematia're
etzitzaien aztu,
tripulaziyo dana
oso giñan nastu,
orregatik Antonek
balia erraz ostu.

- 16/ Ikusi nubanian
 balia barruan,
 penaren poderiyoz
 negar egin nuan;
 gizon petrala pranko
 bazan an orduan,
 kañoi bat kargatuta
 iruki banuan,
 kulpa zuben guziya
 garbituko nuan.
- 17/ Gau artan bota zuben
 gezurrez partia,
 argatik izandu zan
 guretzat kaltia;
 Sebastian du izena,
 ez dakit lonbria;
 zume-punta batekin
 ango alkatia,
 oju egiten zuben:
 «Neu naiz erregia!»
- 18/ Elkano'k bi seme orain
 errege baditu,
 gizon brontzezko orrek
 nola egin ditu?
 Zume zar baten puntak
 ainbeste meritu,
 Zarautz'ko alkatiak
 errekan baditu,
 pobriak serbitzeko
 irukitzen ditu.

19/ Denbora juan baño len
egin aziyua,
badakizu dezuna
obligaziyua:
egiten badezute
errustiziyua,
emango zazutela
ausoluziyua,
bestela or dezute
kondenaziyua.

20/ Besteren gauzarekin
ainbeste grandeza,
gaizki atera zaie
orduko promesa;
«Balia guria dek»
orain esan beza,
zenbat pagatu duten
egin det ametsa:
ogei milla errial
Pamplona'n jueza.

21/ Oiek zer egin duten
eztiyou igerri,
egiya esan biar
errege jaunari;
arpoi asko tiratu,
guziak urari,
ori jarri biar da
txori-bildurgarri,
kobardia dalako
Anton Aranberri.

22/ Atzeneko bertsoa
kantatu artian,
jaunak, egon zaitezte
al bada bakian;
gorrotorik ez artu
alkarren artian,
egon nai ezpadegu
loturik katian,
danok sartzeko gero
zeruko atian.

* * *

Orain, bertsoak nundik artu ditugun adieraziko degu.

Roke Etxabe'ren billobak esan digunez, bertso auk inprentatu gabeak dira, baiñan berak makiña bat bider kopiatu eta zabalduak. Itxura danez, bestek ere egin izan dute lan ori bera. Guri beintzat makiña bat kopia eman digute zarauztarrak, bertso auk liburura asmotan giñala ikasten zutenean.

Baiñan kopia asko bai eta bi berdiñik ez. Bakoitzak bere aldaketak. Aldaketa askorik ere ez, ordea, eta txikiak geien-geienak. Kopiatzaileak uste gabean egiñak.

Kopia oiei lenengo amaika bertsoak artu dizkiegu. Baiñan batetik au berezi eta bestetik beste ura, beti ere erarik egokiena billatuz.

Zarautz'ko kopia oiek, geien-geienak, erde-razko adierazpen bat dute aurretik: «*La ballena muerta pegando a Mollarri por parte del Nordeste, en el día once de febrero de mil ochocientos setenta y ocho. (Copia del título de los versos firmados por Roque Echave.)*» Gutxi gorabehera, danak berdin.

Roke Etxabe'ren billobak arkitu zuan paper batek, leenago bearbada bertso guziak izango zitu, baiñan orain puska falta-edo eta amaika bertso ditu, 12'garrenetikan asi eta 22'garrene-raiño, eta 21'garrena ere falta. Paper orretatik aldatu ditugu guk amaika bertso oiek onera; baiñan Zarautz'ko beste paper oietan egokia-go zeudelakoan, onako auk ez dizkiogu paper orri kopiatu: 12/2: azienden jabe; 12/4: gaizki atera zate; 20/5: balia guriarek; 22/9: danok sartuko gera.

21'garren bertsoa, iñun ere etzegoan, Roke Etxabe'ren billoba orren buruan izan ezean, eta beraren aotik jaso degu.

Zarautz'ko kopia bakoitza zeinien eskutik jaso degun esan gabe, paper oietan arkitu ditugun aldaketarik nabarmenenak onako auk dira: 2/6: ziran ekiteko; 3/1: Bigarren suertia; 3/6: ego-nagarren lo; 8/6: zeuden sokatikan; 8/7: noiz azalduko ote zan; 10/4: ia zan pasatu; 13/1: Molla gañera giñan; 13/2: iru gizon iyo; 13/4: etzun asko baliyo; 13/5: gizonari egitia; 15/1: Kostan laga biarran; 17/4: danontzat kaltia; 17/10: Ni naiz erregia; 18/1: Elkano'k bi ume orain.

Donostia'ko 1854'eko balearen bertsoetan lendabizikoa eta bertso auetan lendabizikoa, berdin asten dira. Nork nori kopiatu dion, esan bearrik ez dago noski.

* * *

Laugarren bertsoan Roke Etxabe aitatzten da. Arek eman zion baleari «lenengo estokada». Aren billoba bat, Roke Eizagirre Etxabe, Zarautz'en bizi da. Arengana joan giñan, bale eta bertso aueri buruz zerbait argibide emango ote zigun. Berri-emale ugaria eta egokia arkitu genduan. Onela esan zigun:

«Bai, Roke Etxabe ori gure aitona zan. Gure ama, aren alabarik gazteena.

Aitona etzan arrantzalea. Obeto esateko, danetik egiten zuana; arrantzan ere bai. Emen bazan fabrika aundia, *textil*, eta antxe lana egiten zuan. Geiena emen urreko arrantza zan. Txibitan eta antxotan eta ola. Ez dakit, balea zan denboran, zenbat enbarkazio edo zer izango ziran. Bañan, ni gaztea nintzanean, iru ziran. Iru txalupa danak, arrantzakoak. Molle txiki ori besterik etzan-da. Batelak eta oiek bai; oiek izango ziran geiago.

Balea ikusi zutenean aterako ziran oiek. Seguru asko, fabrikara joateari lagata. Mariñel mariñelak etziran; ortik bizi ziranak.

Getaria'n bai, badira mariñelak, beste kolperik egiten ez dutenak bein ere. Baratza pixka

bat San Anton'go mendian egiten zuten lenago. Estaduaren mendia da ori eta debalde eman lurrea. Orain ori ere ez; galerazi-edo egin zieten. Orain ez du an iñork kilo bat patata ere botatzen. Bañan len, legorrear ziranean, patata pixka bat egin, tomate pixka bat egin eta orrela. Bestela, kutxilloa zorroztu eta Elkano'ren azpian egon itxasoari begira.

Emengoak etziran orrelakoak. Orregatik esaten dute bertsoak: «kuadrilla ederra giñan euleta errero». Erreroa, Ipolito Aramendi zan. Besteak, euleak izan bear zuten danak; *textil* ortan lana egiten zutenak. Gure aitona bai beintzat garai artan; gero ez baña.

Kapero, berriz, Jabier Kaperotxipi zan. Kaperotxipi pintorearen aitona uste det.¹

Balearekin zer gertatu zan esplikatzen erreza da. Itxasoan, oraintxe arte, zeozer zanean, konpañi egiten zan. Usarioa ala zan. Aparte xamar izaten erreza da itxasoan. Neri ez dit iñork esan eta ez dakit nola dan señalea. Bañan bazuten beren señalea konpañi egiteko, ola eskuakin-edo. Eta besteak konformidadea emateko ere bai. Ta egun artan arrapatzen zana, erdibana.

¹ Zarautz'ko *Arkaitz-mendi* lagun-artean, Roke Etxabe'ren argazki bat dago, eta azpian onela esaten da:

«Etxabe Zubiaurre'tar Roke Jauna. *Tripulantes de la trainera que tomaron parte en la captura de la ballena, cuyo esqueleto se conserva en el aquarium de San Sebastián: Javier Caperochipi (patrón), Francisco Echave, Juan Angel Sorreluz, Hipólito Aramendi (herrero).*

Egin zuten ba lenbiziko junta ori eta an
ibilliko ziran balearen ondoan:

- Emen dek!
- An dek!
- Orrera zia!
- Onera zetorrek!

Ola izango zan itxuraz. Ta Getari'ko patroia
Antton Aranberri, eta alakoren batean ari
puff! erden bitxoa. Arnasa artzera kanpora er-
teten omen da ba balea. Ta azpian nola ezer ez
dagoan egiterik, orduan ba egin bear. Erden zaio
txaluparen ondora eta, alako pieza ikusi zuanean,
sustatu, bildurtu Antton ori eta atzera egin.
Orregatik esaten dute bertsoak: «an etzan ko-
rajarik arpoia sartzeko».

Andikan bereala, berriz, etorri zaie besteai,
zarauzta, eta gure aiton ori an omen zegoan
eta zas! bizkar-egurretik sartu arpoia. Gero plei-
tua eta an omen zegoan arpoi ura bere zarauzta
selluarekin. Atera nai eta ezin kendu. Ainbeste-
raño sartua bizkar-egurrean.

Alle-punta du izena molletikan aruntzaxea-
goko punta orrek. Ortze sartu arpoia, eta gero,
arek indarra eta artu eta arrastra baleak txalupak
eta txalupak etziranak, danak.

Eta badira dardoak izena duten lantzak edo
su-burnia bezelako luzeak. Iru bat metro luzeko
zerak; akaso izango dira luzeagoak. Nik asko
ez ditut ikusi, bañan badakit badirana.

Ta, arrimatzen ziranean, beti ere aiekin sasiatu biotza aldera edo al zuten tokira. Beti ere sartu egin bear kostadutik, eta kolpe oiek odola eman, eta orrela puxkanaka-puxkanaka odol-ustu.

Inguru guzia odoldu egin omen zan zearo; dana gorritu odolarekin. Bañan dardoakin-eta sangratu bear.

Eguardian-edo arpoia sartu eta illuntzean il, esaten zuten. Denbora bear ainbeste aundiko bitxoa ilko bazan. Ez da sastada batekin akabatzen dana.

Amabost oin buztan-pala omen zan. Ez dakit zenbat metro lodian. Luzean ere aditu izan det zenbat; asko beintzat.

Bale zar bat ura. Oiek, esaten dute, iltzera bazterrera etortzen dirala. Sasoiko balea danean-eta, zeñek geratu ura burni koxkor batekin? Etzait iruditzen neri. Arrai txiki batek ere indar ona du eta.

Alle-punta arpoia sartu zioten tokia, eta il zan tokia Mollarri. Mollarri aitzaren atzean. Zarrautz'ko kostan, aruntz aldeko aitz aiek dira Mollarri'ko aitzak. Eta andikan aruntzaxeago, Orio'ko barra.

Ta oriotarrak ere bertan, eta aiek etorri eta asko lagundu iltzen, dardoakin-eta. Getariarrak baño geiago bai. Getariarrak gero ere lagunduko zieten; ez dago dudikan. Etziran kolperik egin gabeak izango aiek ere. Bañan bein menderatu ta gero; seguratu zutenean.

Eta motrikuarrak ere baietz uste det, gutxi edo geiago. Aiek Motriku'tik Pasai'ra-edo txalupa berri baten billa edo ola omen zijoazen. Eta tartean ori billatu.

Eta gero, lenbiziko kontua atera omen zuten getariarrak, itxas txarra zegoala eta portu txarra zegoala Zarautz'en, balea sartzeko. Getari'ra bide ohea zegoala eta toki obeak, ainbeste aundiko puska sartu eta maniobratzeko. Kontxan utziko zutela, plaian, mollatik kanpora. Molla, barrua da; eta kontxa, kanpoa. An boiak, eta barkuak amarratzeko toki ori. Kontu orrekin arrankatu omen zan bale ori Getari'ra.

Bañan ara baño lenago igerri omen zioten zarauztarrak gauza piña edo jatorra etzijoala, eta kargu egiten-da asi eta berealaxe an indarra getariarrak, eta sartu indar guzian jendea eta berena zutela. Tropa ere bazegoan orduan Getaria'n.

Patroia, Antton Aranberri ori ere, kabo-marra (*cabo de mar*) edo zerbait, autoridadea beintzat, eta an erregea zala oju egiñez. Eta alkateak ere, bera zala errege. Eta gero, ara sartu zutenean, Getari'ko molle zarrera, arrika ere eman omen zieten getariarrak zarauztarrai.

Eta gero juizioa preparatu zarauztarrak. Jui-ziora juzgadora deitu eta juzgadoko asunto orrekin danak kaltea. Usteldu bitartean balea. Pasatako gauza da ori. Gure etxean orrela kontatzen zan beintzat.

Gure aiton ori, indar aundiko gizona zan.

Oso gizon fuertea. Altua zala uste nuan, bañan ezetz esan izan didate. Oso espalda zabalak bai.

Ura eulea, arrantzalea eta bañoak ere ematen zituana; bañeroa Zarautz'ko plaian. Ogei ta bi edo ez dakit zenbat atera zituala esaten zuan gure amonak. Aztu zaizkit neri zenbat itota atera zituan eta zenbat ito gabe.

Ta dantzaria ere bai; *número uno* aureskua ateratzen. Emen bakarrik ez; probintzi guzian, festetarako-eta joanda. Iñun festaldirik bazan, gerrikoa jantzi eta plazara. Batzutan dantzaurrea atera eta bestetan zelebrequerian. Oso gizon famatua zan.

Madrid'en ere bai, izaten zan. *Duque de Lé-cera*'k, bi illabeterako-ta eramaten omen zuan berekin.

Gero *Conde de Villapadierna*'k artu zuan. Emen nola da orain etxe-pilla aundia, *Vista Alegre*? Orko jardineria izan zan. Gu or jaiok gera. Gure ama, lau urte zituala-edo etorri omen zan orrera. Bañan, gure aitona zan denboran, etzan orren aundia *Vista Alegre*. Askoz txikia-goa zan; amartik bat edo olako zeozer.

Bañan ango nagusiak, benetako aristokrazia, e? *Quiero y no puedo*'ko jendea ez. Bi anai eta arreba ziran, eta amar serbizioan. Sukaldean bi: kosiñeroa eta pintxea. Garajea, txoferra eta lakaioa. Orain lakaioa zer dan ez daki iñork. Morroia, bañan bere gradua bazuan ark ere. Ark zuan obligazioa kotxea garbitu, eta etxeko andreak edo nagusiak, kotxea bear zutenean, ari

deitzen zioten. Ordubiak edo irurak ordua jarri eta ordurako garbitu eta pronto euki bear zuan kotxea.

Txoferra, berriz, botoi doraduakin eta esku-
doz betetako uniformearekin; izugarri unifor-
me dotorea.

Ta, etxeko andrea edo nagusia etortzen zi-
ranean, lakaioak erantzi txapela eta atea idiki.
Exeri egiten ziranean, lakaioak artzen zuan or-
dena nora joan bear zuten: prailetara edo parro-
kira edo estaziora, eta illean bein Donosti'ra. Eta
itxi atea eta txoferrari pasa ordena nora joan,
eta an joaten ziran trankil asko.

Ainbeste aundiko ipurdi zabalak bai zaldiak.
Bañan Donosti'ra joan-etorria egiteko gauza ez
aiek; potoloegiak. Zaldiak ezagutu nituan nik
etxean, automobilla baño lenago.

Ta an dagoala uste det orain ere inbernado-
rea, *Vista Alegre*'n. Elegantea denbora aietara-
ko. Baita gaurko ere, gaur ere alako inbernado-
rerik egingo balitz.

Ta antxe gure aiton ori, loreak xextoka jarri,
landareak zaitu, eskejeak egin eta olako lanak.

Gero gure aita jarri zan aitonaren tokian, eta
antxe egiten genduan guk ere lanean, aitonak
bezela. Jardinean ogei ta amar milla landare-ta al-
datzen genituan urtean; eta etxe barrurako, pala-
ziorako, inbernadorean milla landare eukitzen
genituan. Etxe barruan ez da ba egiten landa-
rerik. Illunegi-edo izaten da eta ez da bizi iza-
ten. Zortzian bein, jai-goizean, lan ori izaten

genduan: palaziora joan eta landareak, zeozer pasa zitzaienak, kendu eta eraman inbernadore-ra. An amabost bat egun-edo. Berriz mejoratzen ziranean, atzera eraman palaziora egun batzuk egitera. Olaxe ibiltzen giñan.

Ta antxe, inbernadorean jarri zituan gure aiton orrek bertsoak, eta nik billatu nituan gañera.

Ni, ordurako lanean asteko-edo, zazpi urte-ekin edo ortxe. Mutil koxkorra nintzan beintzat. Orduko illa zan aitona. Eta inbernadorean olako mai bat eta beste zera xar bat; errege-sagarrak gorde eta edukitzeko kaja bat. Eta zoko-miran ibilliko nintzan ni, sagarrik al zegoan-edo, eta an paper bat, olakoxe kuadroan, doblatuta. Papera bastante aundia. Letra txiki-txikia. Letzen asi eta «Ara balearen bertsoak», eta etxera eraman nituan. Bertsoak erabat alde batetik etziran; batzuk buelta emanda. Urte askoan egon ziran gure etxean. Gure arreba batek ditu orain Donostia'n bertso oiek.

Makiña bat bider nik eskuz eskribitutako bertsoak. Paper artatik kopiatu. Makiña bat kopia bada or nun edo nun, ez dakit nun dira baña.

Bañan inprentakorik ez dezu billatuko. Inprentatu gabeak dira. Gure etxean esaten zan, aitonak etzuala nai izan inprentatzerik. Ni neu, inprentatu-edo egingo ote genituan ibilli nintzan, mutil gaztea nintzala. Bañan etzala aitonaren desioa eta ola geratu zan ori.

Bañan kantatu aitonak egiten zituan bai, ola maian eta kuadrillan jartzen ziranean. Eta uga-

riago bertso oiek baño. Berrogei ta amar bertso-ta igual berri-berriak, danak balearenak. Pape-rean ogei ta bat dirala esan didate neri eta nik ogei ta bi uste nuan.

Balearenak besterik ez det nik ikasi arenik bein ere. Bañan balearen arrantzan ibillitako getariar oietako bat, gizon aundi bat omen zan eta ostegun santu egun batean borrokako desapioa egin omen zion gure aitonari.

— Egon adi pixka bat, arropa auek aldatu artean —gure aitonak.

Joan etxera eta etorri omen zan, eta plaiara borroka egitera. Eta joan dira getariar aleren batzuk, eta Zarautz'ko jendea ere juntatu omen zan eulia bezela. Bañan utzi ez egin omen zieten getariarrak-eta: etzala olako konturik bear eta aztuta zeudela kontu aiek.

Eta orduan iru bertso gure aitonak. Bitan-edo kantatu zizkidan neri Agustin Ibarguren izeneko batek, eta pena daukat aietxek eskatu gabea. Bañan Ibarguren ura il zala badira onez-kero ogei ta amar urte; larri ibilli edo geiago.

Gure aitona, berriz, orain irurogei bat urte ilko zan. Ni aren besoetakoa naiz. Nik beatzi illabeterekin oñez ikasi, eta amaika illabeterekin eskolara asi. Antxe egoten nintzan, baxterrean. Ezer asko ikasi ez, bañan beste umeakin batera ibilli. Aitonaren bizkarrean joaten nintzan».

* * *

Azkoitia'n jaio eta Zarautz'en bizi dan Patxi Larrañaga adiskideak, onela esan digu:

«Anton getariarra, Getari'ko arrantzale bat garai artan. Nunbait ere beti zeukan gizon bra-boaren fama, eta orregatik deitu zioten, balea ikusi zutenean, zarauztarrak Anton orri.

Bañan gero, kontatzen zutenez eta bertsoak esaten dutenez, balea urreratu zanean, Anton ori, balientetu bearrean, otxandu, kobardiatu. Eta, ura ausartu etzanean, zarauztarrak sartu arpoia.

Nik berrogei ta zortzi urte ditut Zarautz'en, eta lengo arrantzale zarrak ola esan oi zidaten neri, batek baño geiagok.

Astelen-arratsaldean jai egiten genduan, eta batengana edo bestearengana juntatu sagardotegian, eta nik kantatu egiten nituan bertso oiek, gizon bati ikasita, eta onela esaten zuten:

— Motellak, lotsagarri gaituk gu zarauztarrak. Au atzo etorri dek Azkoiti'tik, eta onek balearen bertso danak bazekizkik. Onek kantatzen dituan bezela eta guk iñork alerik etze-kiagu.

Eta gero gertatu zan, Zarautz'ko mollak oso sarrera txarra beti izan du, eta orduan ere bai; orain baño txarragoa izango zuan. Eta, gauza ori zala medio, pentsatu zuten Getari'ra eramatea bale ori, obeto manejatzeko. Sartu zuten Getari'ko mollar, eta getariarrak orduan berak jabetu ziran.

Eta, kantuak esaten duan bezela, alkatea an

zan, eta alkateak bere zume ori eskuan. Jendeari errespeto sartzeko ibilliko zuan.

Eta Zarautz'ko alkateak errekan bazituala. Abendaño baserriko semea zan. Apelidua ez dakit. Urdaneta aldera goazela, aldapa asi baño lentxeago, erribera batean antxe dago baserri ori.

Baserritarra, orduan emen alkate zegoana. Garai artan Zarautz zer izango ba? Utsa. Argatik esaten zioten: Txara uts. Dana txara omen zan garai artan. Orain zuk emendik ikusten dituzun Santa Marina kalea eta auek danak, baratzak omen ziran; soroak danak.

Eta orain ere badaude eta alkate arek erreka alde artan zumeak. Orduan geiago izango zan, itxura danez. Nunbait ijitoak joaten ziran aiek artzera, beren otarratxoak egiteko-ta, eta arek laga egiten. Orregatik esaten du: «pobriak serbitzeko irukitzen ditu». Ez Getari'ko alkateak bezela, zumea artu eta jendea menpean edukitzeko. Zume oiek erregalo ematen zizkiola ijitoai; etzituala enpleatzen iñor dominatzeko.

Nik aditu nuanez, aiek ondo gertatu ziran, Getari'ra sartu zuten arte. Bañan gero nai zuten gazta bat balitz bezela. Gazta ori batek jan nai eta gazta partitzerik etzuan nai. Orixe gertatu zan. Ango okerra ori izan zan.

Ara eraman zutelako, berena zala balea, getariarrak. Aiek etzutela eskubiderik ezertarako, zarauztarrak. Eta orduan jo zuten juiziora, eta Zarautz'ek galdu Azpeitia'n, eta Iruña'n erabaki zan, eta tarte ortan balea usteldu.

Bukaeran esaten duanez, biotz oneko gizona izango zan Roke Etxabe ori-ta, iñori min emateagatik ez dala ezer ere egin bear esaten du. Ta orain ere zuk ori esan bear dezu, egokitasun bat billatuta: ez dala lengo zizaña berritzeagatik eta iñori min emateagatik bertso oiek argitaratzea. Bakar-bakarrik, nola eun urte diran, ezta-kigula orduan gauzak nola gertatuko ziran, bañan bertsoak bertso bezela beren doñu ederrarekin ederrak dirala, eta lengo gauzak berritu egin bear ditugula».

* * *

Getari'ra ere joan giñan, iñoren aotik argibiderik jasoko ote genduan. Balearen berri dakianik izango da an ere. Bañan olakorik guk arkitu ez eta ezer gutxi ikasita etxeratu giñan.

Garai batean, leengo zaarrak, askotan zera-tzen omen zuten kontu ori. Bañan orain, gerok ere ikusi degunez, ederki atzenduta dago.

Gure iritzirako, Zarautz'ek eutsi dio balearen gertaera orri jendearen gogoan. Obeto esateko, Zarautz'ek eta bertso auck.

Getaria'n esan zigutenez, zarauztarrak, balea berak nai etzuten tokira zeramatemala ikusirik, parte eman eta karabineroak mollaren sarreran agertu ziran, balearekin zetozenai *alto* emanaz. Bañan orduan, getariar patroiak paparra zabaldu eta onela oju egin zien:

— Ni il bearko nazute, bale au barrura ez sartzeko!

Ta barrura sartu ziran.

Gero ikusiko degunez, gauzak etziran orrela gertatu; baiñan auzian olako zerbait aitatu zan.

Getaria'n, gaur ere, zarauztarrai burla egiteko onela esaten zaie:

Zarauztarra txorua
balia iltzera,
arpoia amuts-amutsa
arria jotzera.

Batzuek *arpoia motza-motza* esaten dute. Argitaratu ere ala egin izan da. Baiñan *arpoia amuts-amutsa* omen da.

Baiñan zer ote dira lerro oiek? Burla egiteko ziri bat bakarrik ala bertso-sail baten puska? Alegia, getariarrak bertsorik jarri ote zieten zarauztarrai? Ditekena da, baiñan guk beintzat ez dakigu. Eta dakianik ere ez degu arkitu.

* * *

Leen esan bezela, eztabaida adiskide-gisan konpondu bearrean, auzitara jo zuten. Auzi ori, Zarautz'ko eta Orio'ko patroiak, Jabier Kapero-txipi eta Jose Antonio Agote'k asi zuten. Oiek, erderazko itzez esateko, *demandantes*. *Demandados*, berriz, Estanislao Aizpuru, Antonio Aranberri eta Rafael Iriondo, txalupa-patroiak lenengo biak eta Getari'ko alkatea irugarrena. Aiek auen-gandik eskatzen zutena, auxe zan:

«... el importe de la indemnización de todos los daños y perjuicios, menoscabos y gastos por ellos ocasionados a los exponentes, como consecuencia del ilegal proceder de los mencionados tres individuos en la arbitraria y abusiva conducción al muelle de Guetaria y tenaz y persistente detentación en él de una ballena aprehendida el día once del mes próximo pasado...»

Kalte oien ordaiñetan 2.500 pezeta eskatzen zuten, ori zala-ta balearen etekiñetik berak jaso bear zuten zatia.

Azpeitia'n egin zan auzi ori. Urte t'erdi iraun zuan. Paper-mordo ederra osatu zan: 461 orri, geien-geienak folio aundiak eta bi aldetatik idatzia. Esku artean izateko zoria izan degu. An esaten diran guziak ezin onera aldatu. Bertsoen argibiderako diranak kopiatuko ditugu; ez besterik.

Lenengo, Getaria'n nola bildu ziran 1878.II. 27'an, *acto de conciliación* egitera, onez-onean konponduko ote ziran alegia. Alperrik ordea. Agiri bat ere idatzi zuten. Paper orretan, auzizale guzien iritziak daude. Gauzak nola gertatu ziran jakin-araziko digu. Onela dio:

«... Los demandantes dijeron: Que como es ya público y notorio en toda esta Provincia, pero más especialmente en los Puertos de su costa, el día once del presente mes se dejó ver en las aguas de la Playa de Zarauz una ballena, a cuya persecución dio principio la lancha que como patrón dirigía y gobernaba el demandante Don Ja-

vier Caperochipi, pues si bien es cierto que con el aviso dado desde Zarauz a Guetaria salieron también otras tres lanchas de este último puerto, ignorando como ignoraban el sitio en que se encontraba la ballena a media playa de Zarauz, se fueron alejando de ella hacia San Sebastián, hasta que, observando a eso de las dos y media de la tarde que la lancha de Caperochipi se había detenido al par de la fábrica que fue del señor Madoz, cambiaron de rumbo, y dando la vuelta en redondo se fueron acercando a fuerza de remo en el momento en que aquélla, colocada encima de la misma ballena, preparaba sus armas para embestirla, dejándose oír entonces el grito de uno de los patrones de Guetaria que preguntaba si se les admitiría a participación en la pesca del cetáceo, a lo que el patrón de Zarauz contestó afirmativamente: Que acto seguido y a presencia de los cinco tripulantes de un bote de Motrico que pasaba a San Sebastián y se aproximaron como meros espectadores del suceso, el marinero de Zarauz Roque Echave lanzó casi verticalmente su arpón sobre el lomo de la ballena con tal brío, que quedó profundamente clavado el hierro, y el cetáceo se dirigió bramando en línea paralela a la de la playa a guarecerse al abrigo del costado occidental del peñón llamado Umallarri, distrito municipal de Zarauz, llevando constantemente la lancha mandada por Caperochipi la estacha o soga adherida al arpón asestado por Roque Echave: Que estando la ballena en tal disposición, los marineros de dos de las lanchas de Guetaria (pues la tercera ni tenía ar-

mamento, ni tomó parte alguna en la refriega) arrojaron algunos arpones que, a causa sin duda de la distancia, no llegaron a penetrar en el cetáceo, el cual se desprendía inmediatamente de ellos: Que a la media hora larga de haber lanzado Roque Echave su primer arpón, esto es, a cosa de las tres y media de la tarde, uno de los marineros de la lancha de Orio, que también se incorporó a las demás y a la que proporcionaron armas los (de) zarauzanos, arrojó a la ballena un arpón que también quedó perfectamente clavado en ella y a cuyo impulso dio el cetáceo lentamente la vuelta al peñón Umallarri, situándose a su arrimo por el lado oriental: Que en tal estado, los marineros de Guetaria le arrojaron varios dardos con objeto de desangrarle, y que a eso de las cinco de la tarde, habiéndose roto con el roce de las peñas la estacha del arpón de Zarauz, quedando por un momento asida la ballena sólo con el arpón y estacha de la lancha de Orio, uno de los marineros de la lancha de Zarauz volvió a introducirle inmediatamente un nuevo arpón, con el cual y su estacha quedó completamente sujeta y asegurada, hasta que a eso de las seis se sumergió y se fué al fondo; y no dando ya señales de vida, se trató de ponerla en cobro llevándola a tierra: Que llegado este momento y cuando los tripulantes de la lancha de Zarauz no podían imaginarse que pensara nadie en disputarles su preferente derecho a que la presa fuera conducida a la plaza de Zarauz: Primero, por haber sido ellos los que habían iniciado la persecución; segundo, porque esta priori-

dad la tenían reconocida los guetarianos en el mero hecho de pedir que fueran admitidos a la participación de la pesca; tercero, por ser también los zarauzanos los primeros en herirla y hasta en poseerla por medio de la estacha adherida al primer arpón lanzado por Roque Echave; cuarto, por haber principiado, continuado y terminado la pesca en las aguas de Zarauz; quinto, y finalmente, por hallarse la playa de Zarauz situada a pocas brazas del punto en que fue perseguida y capturada la ballena, y a distancia incomparablemente más corta que Guetaria y aun que Orio, los patrones y marineros de Guetaria, sin exponer ni alegar más razón, ni más derecho, ni otro título que su superioridad numérica, se mostraron decididos a apoderarse del cetáceo y arrebatarlo violentamente, así como los de Zarauz resueltos a defenderse y oponer la más enérgica resistencia: Que en tan grave y peligrosa situación, y a punto ya de venirse a las manos los marineros de uno y otro puerto, el patrón de Guetaria Don Estanislao Aizpuru propuso como medio provisional de avenencia que la ballena no fuera llevada al Muelle de Guetaria, sino que quedara como en depósito en la Concha, atada a los cuerpos muertos, hasta tanto que se resolviera la cuestión por quien correspondiera; y que aceptado este partido por los zarauzanos, se pusieron en marcha las cinco lanchas remolcando a la ballena: Que llegados a la Concha, mandó Aizpuru hacer alto, y bajando a un bote invitó a los demás patrones de Zarauz, Orio y Guetaria a que hicieran lo propio, como lo efectuaron todos,

menos el patrón D. Antonio Aramberri, que, desentendiéndose del compromiso y oponiendo la más obstinada y tenaz resistencia, continuó avanzando hasta la boca misma del muelle; actitud que decidió a los patrones que se habían ya trasladado al bote, a saltar en tierra: Que en esta sazón se exhibió en el muelle el Alcalde de Guetaria Don Rafael Iriondo, y enterado del conflicto, ordenó a grandes gritos que el cetáceo fuera conducido dentro del Muelle, añadiendo que en Guetaria él era el Rey; y que llevado inmediatamente a ejecución este mandato, quedó consumada la arbitrariedad; siendo muy de lamentar que el patrón Don Estanislao Aizpuru, que tan consecuente se había mostrado hasta entonces con sus compromisos, hubiese caído en la debilidad de cooperar a la introducción de la ballena en el Muelle, tirando desde él de las cuerdas con que venía asegurada. Concluyen los demandantes haciendo presente al señor Juez municipal, que no pudiendo a juicio de ellos ser punto cuestionable que la conducta observada en este suceso por los demandados los somete y sujeta a una tan grave como evidente responsabilidad civil, que los demandantes no pueden dispensarse de pedir se haga efectiva ante los tribunales competentes, sin perjuicio y a reserva de ejercitar otras acciones, si así vieren convenirles, cumplen con el requisito previo que la Ley exige, dando principio al legítimo ejercicio de sus derechos con la celebración del presente acto conciliatorio. Los demandados contestan: Que no siendo exacto nada de cuanto exponen los demandantes prece-

dentemente, no quieren rebatir aquí su argumentación; y pasan a contestar a la demanda presentada en veinte y cinco del presente mes en la forma siguiente: Que ante todo deben primero hacer constar que antes que fuese herida la ballena, el segundo de los demandantes convino con Don Javier Caperochipi en que el producto de ella sería distribuído entre las cuatro lanchas que se hallaban presentes, que lo eran la de dicho Caperochipi, la de Don Francisco Berasaluce y las de los dos patrones demandados, sin tratar en aquel acto ni después nada acerca del punto en que en caso de ser capturada había de ser conducida; y que no habiendo pactado cosa alguna respecto a la participación del producto del cetáceo con Don José Antonio Agote, que no se hallaba presente, no pueden los que dicen reconocerle ningún derecho, ni a la participación del producto del cetáceo, ni para mostrarse parte en la demanda que se les promueve: Que aprehendido que fue el cetáceo, se condujo a este Puerto sin que para ello los que exponen ejercieran ninguna violencia con los tripulantes de la lancha de violencia con los tripulantes de la lancha de Don Javier Caperochipi ni con los de la de Don José Antonio Agote que venía agregada a las demás: Que si hubo violencia fue sólo ejercida por el señor Alcalde de Zarauz que, al llegar las lanchas a unos doscientos metros de este Puerto, se les presentó y les dio la voz de alto a la tripulación de la lancha mandada por Aramberri, contestándole éste que no reconocía en aquel punto ninguna autoridad a dicho señor Alcalde,

continuando su navegación al Muelle, en el que también trataron de impedirle la entrada unos carabineros que de antemano se habían colocado en una de las escaleras de la punta de dicho Muelle, sin que sepan quién les ordenó se les impidiera la entrada: Que la reclamación de daños y perjuicios que los demandantes hacen a los demandados no se halla en su lugar, puesto que el cetáceo no ha estado a su disposición y sí a la del Excmo. señor Ministro de Marina que en telegrama del trece del presente mes ordenó que la ballena permaneciese en el Puerto de Guetaria hasta nueva disposición, custodiándola la guardia civil de Zarauz, con la consigna de que no permitieran salir del puerto el cetáceo hasta nueva disposición. Que por telegrama del mismo señor Ministro de Marina, de fecha dieciséis del presente mes previno al señor Comandante del ramo de esta Provincia sometiera el deslinde del derecho en todo lo relativo a la posesión y repartición de la ballena a los tribunales ordinarios, a los cuales debían acudir los interesados, por cuyas disposiciones quedan los demandados exentos de la responsabilidad civil que se les exige. Y por último, que no estando en las facultades de los demandados hacer entrega del cetáceo a los demandantes, no pueden acceder por lo tanto a esta petición, que no comprenden con qué derecho se les hace, puesto que éstos son en número de trece y cuarenta y cinco los de Guetaria, y por lo tanto tienen mayor participación en el cetáceo y también más derecho a disponer lo que más convenga a sus intereses. El demandado

Don Rafael Iriondo, a su vez, contestó: Que si bien los demandantes no concretan más cargo contra él que haber dispuesto que el cetáceo entrase en el Muelle, va a explicar, sin embargo, lo ocurrido: Que sobre las nueve y media de la noche del día once del presente mes recibió aviso de que en el Muelle de este puerto se hallaba el Alcalde de Zarauz acompañado de fuerza armada con el objeto de impedir la entrada de la ballena que conducían las lanchas de Guetaria, Orio y Zarauz: Que inmediatamente se personó en el citado muelle, en el cual encontró a dicho Alcalde de Zarauz dando disposiciones para detener las lanchas que conducían el cetáceo, y le previno que se abstuviera de ninguna providencia en aquel punto por carecer de autoridad para ello; previniendo a los patrones conductores de aquél, que entrasen en el Muelle con el cetáceo para asegurarlo de las eventualidades del tiempo; y que después de haberlo asegurado bien se dilucidaría la cuestión de derecho. Que después de asegurado ya el cetáceo, el Alcalde de Zarauz propuso se reunieran los patrones aprehensores en la casa del que dice para tratar de una avenencia, y hecho así no fue posible conseguirlo a causa que unos pretendían llevársela a Zarauz y otros que se quedase en el Puerto. Los demandantes replicaron: Que no es cierto que el convenio supuesto acerca de la participación de la ballena fuese extensivo a la tercera de las lanchas de Guetaria, y que habiéndole ofrecido la de Zarauz a la de Orio en los mismos términos que a los de Guetaria siendo todavía la única

que sujetaba la ballena con su estacha, no puede negársele la participación que reclama, como tampoco su representación en este juicio, y que por lo demás insiste en cuanto lleva relatado en su demanda, insistiendo también en la reclamación que hacen al fin de ella por ser completamente exacto, dejando al señor Alcalde la justificación de las circunstancias en que funda la providencia adoptada respecto a la introducción de la ballena contra la voluntad de los demandantes, y a cuya providencia en nada contribuyeron por su parte. Los demandados contrarreplicaron: Que habiendo tenido noticia de que la ballena se hallaba en las inmediaciones de Zarauz, dispusieron los tres patrones de Guetaria salir a la persecución de la ballena, y fueron recorriendo la costa hasta pasar la piedra llamada «Umallarri» pero sin avistarla, por lo que dieron vuelta hacia la playa de Zarauz, y a la mitad de la misma se encontraron la lancha de Caperochipi y al mismo tiempo apareció la ballena; y el demandado Antonio Aramberri hizo presente a aquél, que todavía era muy joven, pero en su tiempo ha resultado varias veces que por no haber unión entre todos habían desaparecido las ballenas, y sería muy conveniente que tratasen de hacer un convenio con la condición de que la distribución de la pesca debía de ser a partes iguales para todos; a lo que contestaron, así el patrón Caperochipi como los marineros, que para ellos era el mayor gusto. Enseguida el que expone dijo que todos debían procurar por su lado a matar la ballena; y como antes tenían dispues-

to un plan entre los tres patrones de Guetaria de que siempre uno estuviera de resguardo por el recuerdo de que todavía tenían, se puso la lancha de Aizpuru por Oeste; la de Zarauz al centro; Aramberri por el Este; y Francisco Berasaluce por el Noroeste; de modo que salió el pescado en los rompientes de la costa, sin que ni antes ni después tratase con los demandados el patrón José Antonio Agote porque no se hallaba presente, y por lo tanto no le conceden ningún derecho: La primera embestida que se dio a la ballena fue por la lancha de Aramberri, pero a corta distancia de ella dio una guiñada al Este y no pudo alcanzarla a tiro de arpón; enseguida tomaron dirección al Este las tres lanchas de Guetaria y una de Zarauz, y resultó que a la de este último puerto se le presentó la ballena a tiro y le dio el primer arponazo; y después, yendo en la misma dirección, al par de San Pelayo, dio el segundo arponazo la lancha del demandado Aramberri; a luego enseguida entró Estanislao Aizpuru dos arponazos a dicha ballena; y aún no había noticia ninguna de José Antonio Agote; por todo lo cual, los demandados no pueden concederle ninguna participación en el cetáceo ni en la demanda; si Javier Caperochipi, según manifiesta, admitió en el convenio a José Antonio Agote, lo hizo sin conocimiento de los demandados, y por lo tanto que le pague su trabajo Caperochipi. Oído el parecer de los hombres buenos y propuesta la conciliación por medio de diferentes proposiciones, presentadas por el señor Juez municipal y hombres buenos, no

habiendo habido conformidad, se dio por intentada la conciliación y por terminado el acto...»

* * *

Ikusi degunez, Zarautz'ko alkateak karabini-
neroak-edo bialdu zituala esan zuten getariarrak.
Bein baiño geiagotan erantzun zioten salaketa
orri zarautzarrak, auziaren paperetan irakurtzen
danez. Ona, adibidez, oietako bat:

«Se ha supuesto por los guetarianos, con un propósito que sin temeridad puede sospecharse, que Don Joaquín Amilibia, Alcalde de Zarauz, «entró en Guetaria con fuerza armada de la Guardia Civil y Carabineros, para impedir que la ballena fuera introducida en el muelle, provocando de este modo un gravísimo conflicto entre las fuerzas de ambos pueblos», y en este supuesto, completamente falso en todos sus extremos, se fundó el oficio dirigido desde Guetaria al señor Juez de Primera Instancia de Azpeitia, dando con ello margen a la instrucción de diligencia, cuyo resultado ignoran Caperochipi y Agote. El Alcalde de Zarauz, que pasó a Guetaria en la noche del once de febrero sin otro objeto que el muy pacífico que se ha manifestado ya, no podía pensar siquiera en la insensatez de reclamar el auxilio de la fuerza armada de Zarauz, sabiendo que pasaba del duplo la que existía en Guetaria (y esto, aparte otras muy obvias consideraciones, que hacen que esa suposición temeraria sea más ofensiva que para el Alcalde de Zarauz, para

los jefes de los dos citados institutos); siendo notorio a todos los que en aquella noche se hallaban en estado de ver las cosas con calma y serenidad, que el mencionado Alcalde de Zarauz se trasladó a Guetaria en una lanchita que no llevaba más armas ni otros pertrechos que los remos de sus cinco o seis tripulantes, y que la escasísima fuerza, tanto de la Guardia Civil como de Carabineros, hizo su viaje por tierra cumpliendo sus respectivos deberes y con los diversos fines que sus dignos jefes, los señores Vidal y Martínez, han consignado en sus declaraciones...»

* * *

Auziaren paperetan ageri denez, Kaperotxi-pi eta Agote'ren *procurador* izan zanak, Serafin Tapia'k, galdera-pilla bat prestatu zuan 1879.I. 31'an Antonio Aramberri'rentzat:

«... que conviene al derecho de mis defendidos que el demandado D. Antonio Aramberri declare bajo de juramento indecisorio al tenor de los extremos siguientes...»

Galdera oietako batzuek argibide berririk ematen digute bertsoen txeeetasunak obeto uler-tzeko.

Zazpigarren bertsoak onela dio: «Getari eto-rrri zan arpoiaren galdez...». Irugarren galderak argituko digu ori:

«Cómo es cierto que la lancha mandada por Berasaluce no llevaba, ni antes, ni durante la persecución y aprehensión del cetáceo, arma alguna ni instrumentos propios para la pesca de la ballena.»

Erantzuna onela eman zuan Aranberri'k,
1879.II.10'an:

«A la tercera dijo: que es cierto el contenido de la pregunta; pero debe advertir que si no llevaba arma era porque no convenía e iba en reserva para prestar auxilios por si ocurría alguna desgracia como ha ocurrido en otra ocasión.»

* * *

Zortzigarren bertsoa, Tapia'k Aranberri'ri egindako bostgarren galderak argituko digu:

«Cómo es cierto que al tratarse en Umallarri de la conducción a puerto de la ballena muerta, el declarante se acercó al patrón Caperochipi para prevenirle que, en el caso de que Berasaluce le pidiera chicote para hacer un mérito tomando parte en el remolque de la presa, se lo negara, habiendo el declarante añadido, como causal de su prevención, la frase: «antes era ocasión de trabajar, y no ahora»; si bien, poco después fue el mismo Aramberri quien, cambiando de parecer, proveyó de chicote a Berasaluce.»

Aranberri'ren erantzuna:

«A la quinta dijo: que no es cierto el contenido de la pregunta.»

* * *

Amabigarren bertsoak onela dio: «... oju egiñaz»: Ni naiz emengo errege».

Tapia'ren lendabiziko galderak onela dio:

«Cómo es cierto que en la noche del once de febrero del año próximo pasado la lancha procedente de Zarauz, que conducía al Alcalde de la misma villa Don Joaquín Amilibia, alcanzó antes de emparejar con el punto llamado Ubidi o Ubidea a las que remolcaban a la ballena muerta en Umallarri, y de las cuales la primera estaba a las órdenes del declarante; y que, habiéndose dado desde la citada de Zarauz la voz de Alto con objeto de ponerse al habla con las remolcadoras, el declarante se negó a detener su lancha, diciendo que allí él era el Rey.»

Aranberri'k, 1879.11.10'an, onela erantzun zuan:

«A la primera dijo: que no es cierto el contenido de ella, pues lo ocurrido fue que como unos doscientos metros antes de la boca del muelle de Guetaria, se les aproximó un bote, y desde él dio uno la «voz de alto», a lo cual preguntó el declarante que qué traían, y volviendo el primero a decir «alto, que soy el Alcalde de Za-

rauz», contestó entonces el dicente que el Alcalde de Zarauz no tenía nada que ver allí, y él era el Alcalde y el Rey en su lancha.»

* * *

Amazazpigarren bertsoak dionez, balea Geta-ria'ko mollara sartzerakoan, bertako alkateak «oju egiten zuan: «Neu naiz erregia!».

Alkate orrentzat ere prestatu zuan Serafin Tapia'k beste galdera-sorta bat, 1879.II.28.an, eta oietako bat, bigarrenkoa, onako au:

«Cómo es cierto que, lejos de acceder el declarante a esta petición, ordenó reiteradamente y en alta voz a los patrones de las referidas dos lanchas remolcadoras, que introdujeran la ballena en el muelle, añadiendo que «Allí él era el Rey.»

Alkate orrek, 1879.III.11'an, onela erantzun zuan:

«A la segunda dijo: que no es cierto el primer extremo de la pregunta, sino que dirigiéndose al público manifestó que dejaran la entrada y salida libre para todo el mundo, añadiendo, en vista del tumulto y para hacerse obedecer, «que allí él era el Rey.»

* * *

Amazazpigarren bertsoak onela esaten du: «Gau artan bota zuben gezurrez partia, argatik

izandu zan guretzat kaltia...» Gauzak onela gertatu ziran, guk uste:

Balea il eta biaramonean, Zarautz'ko alkatea Donosti'ra joan zan:

«... se presentó... al Comandante de Marina de esta provincia, residente en San Sebastián, siendo portador de un oficio en que como Alcalde le refería la verdad de lo ocurrido y pidiendo que se dignase resolver a qué puerto correspondía fuese conducido el cetáceo. Que en la conferencia tenida con dicha autoridad, y a la cual le acompañó el abogado D. José Lázaro Egaña, después de haber oído al patrón del bote de Motrico que presencié la pesca desde el principio hasta el fin, resolvió el Sr. Comandante que la ballena debía haberse conducido a Zarauz por cuanto la playa más próxima al puerto donde tuvo lugar la pesca era la de esta villa, y escribió un oficio para el Alcalde de Guetaria, donde se le ordenaba que hiciera que la ballena fuese conducida a este puerto...»

Baiñan getariarrak ere etziran lo egon, eta partea-edo bota eta Madritik, Marina'ko Ministroagandik, telegrama bat lortu zuten 1878.II. 13'an:

«Disponga V. S. lo conveniente para que se suspenda el llevar a Zarauz la ballena que está en el muelle de Guetaria, ínterim se decida cuál de los dos puntos tiene mejor derecho sobre el cetáceo.»

Eta beste bat andik iru egunera:

«Someta V. S. el deslinde del derecho en todo lo relativo a la posesión y repartición de la ballena a los Tribunales ordinarios, a los cuales deben recurrir los interesados con arreglo a las leyes vigentes.»

* * *

Balea il eta aste betera, Otsaillaren 18'an, eskutitz bat bialdu zieten Getaria'ko patrioiak Kaperotxipi eta Agote'ri: etortzeko, balea usteltzen asia zala eta zerbait egin bear zala, erriaren osasunak kalterik izango ez bazuan. Gauza bera eskatzen zien Getaria'ko alkateak Otsaillaren 21'an eta Martxoaren 2, 7 eta 8'an:

«... he acordado... prevenir a V., como uno de los dueños que es del cetáceo, que en todo el día de hoy se presente en esta población para que en unión de los demás propietarios adopten los medios que den por resultado la desaparición de dicho cetáceo del punto en que se encuentra...»

Kaperotxipi eta Agote'ren erantzuna: sartu zutenak ateratzea zeukatela, eta Getaria'ko alkateak etzeukala Orio'n eta Zarautz'en aginpiderik. Eta balearen usteltzeaz:

«... no ha podido sorprenderme la noticia de que hoy, 2 de marzo, se encuentre en estado de descomposición dicho cetáceo, recordando que a juicio de esos patrones, ya lo estaba al día y

medio de aprehendido... sin que esto haya servido de obstáculo para que VV. hayan mantenido en constante exhibición el cetáceo hasta el día de hoy, con evidentes ventajas de esa villa y de V. más especialmente, pudiendo considerarse como milagrosa tan prolongada conservación...»

Taberna baitzeukan Getaria'ko alkateak kale nagusian, eta arek kalterik ez jendea etortzeaz:

«... la gran concurrencia de gente que diariamente acudía de muchos pueblos de esta provincia y aun de otras con objeto de ver el cetáceo...»

Baiñan agintarien gogoko ez izan erantzun ori eta bostna duroko multa jarri zieten.

Azkenik, Donostia'ko Erriko Etxeak balearen ezurrak erosi zituan, eta ara eramán ziran. Baiñan bidean ere zerbait gertatu zan:

«Y por último, en virtud de nuevas gestiones practicadas por el Ayuntamiento de San Sebastián, el cetáceo existente en el Muelle de Guetaria, o hablando con más propiedad y precisión, su esqueleto (y éste muy incompleto) ha sido conducido a aquella Ciudad el día tres de abril del actual por un lanchón de Guetaria al mando del mismo patrón Antonio Aramberri; no debiendo aquí omitirse la notable circunstancia de que en la madrugada del siguiente día cuatro yacían en la playa de Zarauz los restos corrompidos de la ballena que habían quedado el día anterior en el Muelle de Guetaria después de practicada la monda del esqueleto; restos algo más

que inanimados, que puede asegurarse sin exponerse a error no realizaron por virtud propia su larga travesía desde dicho muelle a la playa de Zarauz.»

* * *

Erabakia, balea il eta andik urte t'erdira eman zan, 1879'eko Uztaillaren 29'an. Ona emen, erderaz *considerando* esaten diran oietako batzuk:

«Considerando que por parte de los demandantes Caperochipi y Agote no se ha probado tan cumplidamente como debiera la certeza de la existencia de un pacto o convenio formal en el que los demandados Aizpuru y Aramberri, como partícipes de la ballena de que se trata, se obligasen o comprometiesen a dejarla en la Concha o Bahía de Guetaria hasta tanto que se resolviese por inteligentes la cuestión entre ellos suscitada sobre el punto a donde debería ser conducida, ni menos que el hecho de introducirla al muelle se ejecutase por orden del Alcalde Iriondo, a quien demandan igualmente, porque en cuanto al primer extremo, si bien el Aizpuru absolviendo posiciones declara que al suscitarse la indicada cuestión propuso que por el pronto se condujese el cetáceo al punto mencionado, añade que no expresó que no hubiera de llevarse al muelle, y tal proposición la hizo para apaciguar la gente que estaba ya sobreexcitada; al Aramberri no se le ha preguntado sobre dicho extremo, aunque ha sido interrogado por otros,

negando su representación, por lo demás su compromiso, y de los tres testigos vecinos de Zarauz, si bien tripulantes de la lancha de Aramberri, presentados para justificar ese convenio, dos de ellos contestan afirmativamente la pregunta de su razón respecto a lo propuesto por Aizpuru y aceptado por Caperochipi, ignorándolo el tercero que se hallaba presente en la misma lancha; todo lo cual induce a dudar de la formalidad de ese pacto, particularmente por lo que hace a la obligación del Aramberri, y acerca del segundo particular niega el demandado Iriondo en declaración jurada la certeza del hecho o mandato que se le atribuye, manifestando que expresó, dirigiéndose al público, que se dejara libre la entrada y salida, cuyo aserto confirman cuatro testigos de Guetaria presentados por los demandados, sin que resulte otra prueba respecto a este extremo.»

«... que aun admitido el pacto o convenio de referencia, no se demuestra ni aparece que su infracción fuera la causa determinante e inmediata de los daños y perjuicios...»

«... y no por haber sido introducida en Guetaria pudo dejar de obtenerse la utilidad que de ella se esperaba, hallándose en lugar seguro y adecuado para su exhibición...»

«... o que se les impidiese beneficiarle en la parte que les correspondiera, ni que su pérdida sobreviniese por culpa de sus contrarios, sino más bien por falta de común acuerdo entre los condueños...»

Eta, azkenean, erabakia:

«Fallo: que debo declarar y declaro que por parte de los demandantes D. Javier Caperochipi y D. José Antonio Agote no se ha probado bien y cumplidamente su acción en este pleito, y en consecuencia absuelvo de la demanda a los demandados...»

* * *

Galtzalleak goragoko epaitegira jo zuten: Iruñe'ra. Pobreak zirala, lege-gizonik berak ezin pagatuko zutela eta auzitegiak izendatzea nai izan zuten. Azpeitia'n ori lortua zuten. Baiñan Iruñe'tik ezezkoa jaso zuten, 1880.VI.23'an:

«... Resultando que entregados los autos a los apelantes, defendidos como pobres, para expresar agravios, manifestó el Abogado a quien le tocó en turno la defensa, que no había términos hábiles para ejercitarla, lo que repitieron dos Le-trados más y el Fiscal de S. M. Resultando que requeridos los apelantes para el nombramiento de nuevos defensores y habiéndolo verificado, el elegido hizo igual manifestación que los anteriores, por lo que esta Sala ordenó se requiriera a aquellos para que en el término de seis días nombrasen Abogado que hiciese su defensa en este pleito, bajo apercibimiento que de no encargarse el nombrado se les tendría por decaídos de su derecho, cuyo requerimiento tuvo lugar el día ocho del actual. Resultando que no habiendo comparecido los mismos, el Procurador

Martín a nombre del apelado Don Rafael Iriondo su escrito presentado en dieciocho del corriente mes les acusa una rebeldía y pide se declare desierto el recurso de apelación. Considerando que no habiendo nombrado los apelantes el Abogado que se encargase de su defensa dentro del plazo que se les señaló, procede declararse desierto el recurso interpuesto de la sentencia dictada por el Interior. Se tiene por acusada la rebeldía y por desierto con costas a los apelantes el recurso interpuesto en estos autos...»

(1878)

KANTABRIA'KO ARRANTZALIAK

Amabost bertso auk, Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren bildumatik artuak ditugu. Izenburua ere, toki beretik.

Paperetan agertu eta zabalduko ziran noski bertso auk, baiñan orain arte beintzat ez degu alerik ere eskuetaratu al izan.

Galerna bat sortu eta arrantzale asko galdu omen dira: Bermeo'tik 95; Elantxobe'tik 47; Colindres'tik 35; Santander'tik 15; eta abar. Iruren lagun baiño geiago ito.

Urtea, irugarren bertsoak esaten digu: 1878. Egunik ez da ageri. Ikasteko modu izan degu ordea: Apirillaren 20'an izan omen zan ekaitz ori.

Egillearen berri ez da iñun ematen, eta ori somatzeko biderik ere ez degu guk beintzat ikusten.

- 1/ Kantabria'ko kostan onetan
gertatu diran kasuak,
esan didate ager ditezten
ipiñitzeko bertsuak;
alborotatu eta galerak
eman ditu itxasuak,
ango mariñel gizaraxuak
etzeuden portunosuak.

- 2/ Desgraziarik orrelakorik
sekulan ez da aditu,
itxaso ori asarretuta
neurrian ezin kabitu;
nere kristauak, aiziak eta
urak indarrak baditu,
aplakatutzen dan arte bera
iñork ezin errenditu.

- 3/ Desgrazia au gertatua da
España'ko partian,
esan diteke Donostia'tik
Santanderra bitartian,
milla zortzireun irurogei ta
emezortzigarren urtian;
baja aundia egiña dago
mariñel oien artian.

- 4/ Endemas ere Bizkaia'n dira
txit gaizki ibillituak,
Bermeo'n bertan larogei eta
amabost beintzat ituak;
arrantzaleak famili asko
mantentzen berak oituak,
konsideratu orain zer moduz
dauden oiek geldituak.
- 5/ Ito ainbeste itxasuan da
gertatu dirade gaizki,
animak ere peligro aundin
izango ziraden noski;
ala iduritzen, eta juzgatzen
Jainkuak danak dakizki,
familiara pesalunbreak
or modu askok dakarzki.
- 6/ Berrogei eta zazpi galduak
Elantxobe'ko erritik,
ogei ta amabost Colindres'tikan,
amabost Santanderratik;
esan dedana, Kantabria'ko
arrantzalien artetik
bestera joana badago franko
aurten mundu onetatik.

7/ Kosta onetan erri danetan
izan dira señaliak,
batzuek ito, besteak penaz
bajatu arrantzaliak;
lana egin da gañerakuan
dibersiyuan zaliak,
tristetu eta lutoz betiak,
ezagun dute kaliak.

8/ Lekeitio'n da naiz Ondarrua'n,
Motriko'n da Donostia'n,
Alkorta'n ere aita-semiak,
mariñelik dan guztian;
gizarajuak txaluparekin
olatuaren azpian,
konsideratu galerna orrek
zenbat pena dakarzkian.

9/ Ai, itxasora ez dadukagu
edozein moduz juaterik,
an dabiltzanak jeneralian
daude peligroz beterik;
egiten badu emen edo an
modu ortako kalterik,
ez dauka iñork alkateakin
justizia egiterik.

10/ Orain amabi urte omen zun
piska bat alborotua,
ez jakin orain urrena berriz
noizko daukan gorrotua;
ordu batian umil badago
besterako asarretua,
izanagati estudiatua
argan ezin fiatua.



11/ Orain irureun urte omen zan
gertaera au lenago,
bitarte ontan zenbait otz bero
naski izandua dago;
ikusi zuanik gaur bizi danik
munduan iñor ez dago,
bañan paperan ipiñi zuten,
neroni leitua nago.

12/ Mariñel asko ito omen zan,
besteak bildur da larri,
arrisko ortan berriz geiago
ez omen zuten nai jarri;
gero arrairik ateratzen ez,
kalean kosetxak urri,
Galizia'tik arrantzaliak
berriak ziran etorri.

13/ Esplikatu det al dan moduan
mariñel oien bizitzan,
len eta gero galdu-gordean
zer estadutan dabilizan;
munduan danok bajuagua
anparatuaz gabiltzan,
beste modutan egokiago
ala baño ezin izan.

14/ Famili asko bajatu dira
mariñel jende orrenak,
ume txikiak eta andreak
gizona galdu zaienak;
jeneralian pobriak berriz
orrelakuak geienak,
zer obra ona egingo duen
zerbait laguntzen dienak.

15/ Il diran oiek baldin mantxarik
bazeukaten animetan,
eta arkitzen badira orain
purgatorioko penetan,
oraziyo guk egin dezagun
aientzat mundu onetan,
Jaun Dibinuak artu ditzala
zeruko glori aietan.

Oker kopiatuta zeudelakoan, zuzendu egin ditugu zenbait bertso-lerro. Onela daude Adu-riaga'ren esku-idatzian: 9/4: dago peligroz be-terik; 11/3: bitarte ontan zenbat otz bero; 13/4: munduan danok bajuaguan; 14/8: zer-bait laguntzen dionak.

* * *

Bilbo'ko *El Noticiero Bilbaíno* egunkariak onela zion andik iru egunera, Apirillaren 23'an:

Embargados de una pena profunda y de un dolor angustioso, tenemos que cumplir hoy el triste deber de dar cuenta a nuestros lectores de un acontecimiento terrible que acaba de llevar el luto y la desolación a infinidad de familias, consternando a todos los moradores y vecinos de los puertos del litoral cantábrico, los cuales no registran en el catálogo de los siniestros marítimos otro que se le iguale al que vamos a describir, tanto por el número de las víctimas que ha ocasionado como por las circunstancias verdaderamente imprevistas que en él han concurrido.

Amaneció el infausto y memorable día del Sábado Santo —cuyo recuerdo no se borrará jamás de nuestra memoria— con una bellísima y dulce temperatura, verdaderamente primaveral, reinando una ligera brisa del Nordeste que convidaba a los pescadores a salir a dedicarse a sus

faenas de pesca, y a bogar por el líquido y dormido elemento hasta alta mar. Así es que casi todas las lanchas pescadoras de nuestros puertos salieron al alborear la bellísima y plácida aurora del día 20.

Sobre las once y media de la mañana varió el viento, empezando a soplar el Sur, aunque suavemente, y así continuó hasta la una menos cuarto, hora en que de una manera inesperada, sin señalarlo el barómetro, una manga de viento huracanado del Noroeste se dejó sentir con extraordinario ímpetu, descendiendo de tal modo y tan repentinamente la temperatura que no hubo intervalos graduales entre el calor y el frío.

En los tres cuartos de hora que próximamente duró tan violento temporal, ¡cuántas lágrimas, cuánto luto ha sembrado en nuestras costas! ¡Pobres pescadores!

He aquí los desconsoladores datos de este cataclismo que hasta la tarde de ayer se conocían en la comandancia de marina y los cuales se nos facilitó por el señor comandante con una fineza que obliga nuestro agradecimiento.

De Bermeo faltan 14 lanchas con 106 pescadores, de los cuales son conocidos 88 ahogados (de ellos 30 son de una misma calle), de Elanchove 38 individuos ahogados y de Lequeitio 8.

El espectáculo que ofrecen estos días los pueblos de la costa es indescriptible. Gritos de dolor, ayes de amargura, lágrimas de desolación por todas partes. No hay familia que no tenga

que lamentar la pérdida de algún ser querido, o por lo menos de un pariente más o menos cercano.

Las noticias que ayer se recibieron dan detalles espantosos de este triste acontecimiento, pues varios viajeros que han venido de los pueblos de la costa nos aseguran que en algunas costas van apareciendo, barridos por las olas, los cadáveres de algunos náufragos, y hasta restos humanos separados.

El capitán del vapor "Itálica", señor Ansótegui, nos contó ayer con los ojos llenos de lágrimas un episodio tristísimo y desgarrador, del cual fue él testigo. Venía dirigiendo su vapor, cuando le sorprendió la galerna en frente de Castro. En un instantáneo y fugaz momento en que la densidad de la nube que lo envolvía aclaró un poco permitiendo distinguir los objetos de la mar, vio no lejos del vapor una lancha volcada, y sobre ella tres hombres que con las manos levantadas al cielo pedían socorro. El Sr. Ansótegui dio inmediatamente una voz de consuelo a aquellos infelices náufragos, diciéndoles que ya les había visto y que se dirigía a salvarlos. Aquella voz debía ser para ellos la voz del ángel... pero, ¡oh, suerte fatal!, ¡oh, "sino" desgraciado!

Cuando el capitán del "Itálica" trató de orzar el buque, no pudo conseguirlo por la fuerza del viento. Grandes fueron los esfuerzos que tanto el Sr. Ansótegui como toda la tripulación hicieron para ello..., pero todo fue en vano.

Aquellos tres infelices que demandaban socorro al vapor "Itálica" y que también naufragaron, han sido padre y dos hijos, según las noticias posteriormente recibidas.

La galerna ha sido general en toda la costa cantábrica.

Santander también ha pagado su tributo. De 6 lanchas que salieron conduciendo 61 pescadores, sólo se han salvado 5, pereciendo por consiguiente 56 (esto sin contar algunos otros botes que se supone hayan también naufragado).

De San Sebastián no se sabía ayer que faltaban más que cinco pescadores, cuya suerte se temía, de los cuales había sido encontrado un náufrago cerca de la costa, que pudo salvarse atado a un remo.

...No concluiremos tan triste y desconsoladora reseña, hecha desaliñada y pobremente, tal como nuestra memoria turbada por el pesar nos ha inspirado, sin hacer un llamamiento caluroso, una excitación ardiente a todo el vecindario de esta villa y a Vizcaya toda, a que contribuyan con el óbolo de su limosna a enjugar las lágrimas de tantos padres sin hijos, de tantos hijos sin padres, de tantas viudas, de tanta horfandad, de tanta desgracia.

Entretanto se organizan las comisiones respectivas a fin de que la suscripción dé el resultado debido, atendiendo a la inmensidad de tan gran desgracia, abrimos nosotros en nuestra redacción una suscripción, deseosos de contribuir

también por nuestra parte a remediarla en lo posible, encabezándola con nuestro pobre óbolo, proporcionado a nuestras fuerzas.

Suscripción a favor de las familias de los pescadores ahogados en las costas de Vizcaya el día 20 del corriente:

La Redacción de El Noticiero Bilbaíno: 100 reales vellón.»

Bizkai'ko Diputazioak ere, suskizio bat asi zuan, berak berrogei ta amar milla erreal emanik. Gipuzkoa'koak ere berdin egingo zuan. Baiñan probintzi auetan ez-ezik, España guzian barrera ere suskizioak idiki ziran. Ta teatro-jaialdiak eta olako festa asko ere egin ziran, bildutako dirua itoen familientzat bialdurik.

Iparragirre Madrid'en omen zan orduan, eta festa oietako batean kantatu egin zuan, berak ere bere apurra eskeñiz.

Sail ontako 13 eta 14'garren bertsoak ere, jendearen laguntza eskatzen dute.

Beste bi alditan ere, arrantzale asko galdu omen zan: oietako bat, amabi urte leenagotik izan omen zan, 10'garren bertsoak dionez; eta bestea irureun urte leenagotik, 11'garrenak esaten duanez. Baiñan galerna edo ekaitz oien berrik ez degu guk beintzat iñun ikasi.

El Noticiero Bilbaíno ori, urrengo eguntan ere mintzo da noski ezbear orrezaz. Baiñan, geiegi ez luzatzearren, utzi egin degu.

(1879)

ARRANTZALIARENAK

Amabi bertso auek esku-idatzi batetik ditugu: Tolosa'ko Fakundo Adurriaga *Besamotza* zanaren kuadernotik. Izenburua ere, toki bere-tik artua da.

Egillearen izenik ez da esaten; eta ori somatzeko biderik ikusten ere ez.

Urterik ere ez da adierazten, baiñan eguna bai: Ilbeltzaren zortzia. Egun orretan, «zumaiar txalupa bat zegon desgraziyan». «Ogei lagun zituben»; Agustin Andonegi izeneko batek «zazpi artu zituben», eta amairu galdu ziran.

Urtea ere ikasi nairik, Zumaia'ra joan giñan arratsalde batez, eta ango eliz-artxiboan eriotz-liburuak urterik-urte Ilbeltzaren zortzian begirra asi.

Bai nai genduana arkitu ere: 1879'an gertatu zan ezbear ori. Zazpigarren eriotz-liburuan, 53-54 eta 55'garren orri-aldeetan, amairu arrantzale oien eriotz-agiriak irakurri genituan. Guziak itz berdiñak dituzte, bakoitzaren izen-deiturak, urteak eta gainontzeko zerak izan ezik. Orregatik, aurrenarena bakarrik aldatuko degu onera, ondoren beste guzien izen-abizenak-eta agerturik:

«Día ocho de enero de mil ochocientos setenta y nueve, habiendo ido a la pesca de besugo la lancha nombrada de San José, de esta villa de Zumaya, con veinte personas, se ahogaron trece, de las cuales una era D. Francisco María Vidaurreta, de estado soltero, de edad de cuarenta y tres años cumplidos, natural y parroquiano de esta misma villa, e hijo legítimo de D. José Agustín, ya difunto, y de Dña. Magdalena Olaizola, natural y parroquiana de esta dicha villa, y el día once de este mismo mes se hicieron los funerales en esta iglesia parroquial según el ritual romano y firmé: D. Francisco de Echániz, vicario.»

Beste guzien izenak-eta:

Franzisko Maria Zubia, 22 urte, ezkongai, zumaiarra.

Manuel Inazio Gómez, 28 urte, ezkongai, zumaiarra.

Jose Felipe Amilibia, 47 urte, ezkondua, itziartarra.

Jose Etxabe, 48 urte, ezkondua, zumaiarra.

Juan Antonio Egaña, 25 urte, ezkondua, zumaiarra.

Jose Luis Agirrezabalaga, 32 urte, ezkondua, zumaiarra.

Inazio Esteban Etxabe, 19 urte, ezkongai, zumaiarra.

Jose Maria Aizpurua, 40 urte, ezkongai, zumaiarra.

Julian Romualdo Eizagirre, 19 urte, ezkongai, zumaiarra.

Torkuato Roke Azkue, 50 urte, ezkondua, aski-uarra.

Sabas Amas, 50 urte, ezkondua, zumaiarra.

Franzisko Iraundegi, 50 urte, alarguna, zumaiarra.

* * *

Beste zazpiak salbatu zituan Agustin Andonegi ori, ez dakigu nor eta nongoa zan; motrikuarra bearbada, abizen ori ugari baita erri orretan.

Bertsoen atzetik, izenik bat ere ez eta beste abizen bat irakurtzen da Adurriaga'ren esku-idatzian: Manterola. Egillearena izango da bearbada. Ala balitz, bertsolari ez-ezaguna genduke, arenik ez beste bertsorik ez beste argibiderik jaso ez baitegu.

1/ Kanta triste batzuek
arrantzaliari
uste degu dirala
jartzia komeni,
oiek daukaten bizi
negargarriyari,
izan gaitezen danok
oien errukari,
biyotzez eskatuaz
Jaungoiko Jaunari.

2/ Len ere izan dira
probalidadiak,
zer modutan bizitzen
diraden tristiak;
oien irabaziyak
txit dira pobriak,
ez du beste errezorik
emengo jendiak:
arren, salba ditzala
Jaungoiko guriak.

3/ Ilbeltzaren eguna
zortzigarrenian,
arrantzara atera
ziraden goizian;
gero tempestade bat
mendebal-aizian,
trezak bota ta altxatzen
asi ziranian,
milagrozt zitubena
danak sartu urpian.

4/ Trezak bertan utzita
etxera abiyán,
jira-bira egiñik
guztiak iya-iyán;
gero pasa zitzaien
bidian erdiyan:
zumaiar txalupa bat
zegon desgraziyan,
bai sokorritu ere
alegin guziyan.

5/ Ogei lagun zituben
tripulaziyuan
zumaiar txalupa orrek
galduta itxasuan;
Agustin Andonegi
bere aziyuan,
naiz bera ibillirik
iya-iya galduan,
zazpi artu zituben
al zuben moduan.

6/ Agustin Andonegi'k
eman ditu pruebak,
bere mutillak nola
ez diran motelak;
onrak ere irabazi
ditu asko berak;
zerbait lagundu izan
baziyon denborak,
etziraden itoko
amairu gizonak.

7/ Iñola arrimatu
ezinda salbatu,
alako egualdiya
zitzaioten sartu.
Danak ojuka: «Arren,
jaunak, gu're artu!»
Aien antziz biyotzak
ziraden urratu,
bañan iñola ere
ezin anparatu.

8/ Berak iya galduta
gizonak salbatzen,
pensa zazute oiek
balorerik duten;
beste geiago ere
artu nai zituzten,
bañan itxas gaiztuak
etzioten uzten,
ondo penaz an utzi
zituzten itotzen.

9/ Ai, arrantzaliaren
bizi penosua!
Ofiziyu ori ez da
inbidiosua,
oien irabaziya
ain da kostosua;
gure Jaungoiko maite
amoriosua,
arren, bedeinka zazu
berriz itxasua.

- 10/ Agustin Andonegi,
zure baloreak
munduari eman dizka
probalidadeak;
merezi dituzute
ondo onoreak,
zu ta zure txalupen
zeguen jendeak,
zergatikan zeraden
umano nobleak.
- 11/ Oien biziya beti,
dudarik ez dago,
naiz osasuna izan
arriskuan dago;
egon arren denbora
kalman eta klaro,
derrepentian txarra
sartutzen bazaio,
galtzen dira egin arren
makiña bat saio.
- 12/ Jaunari biaiogu
barrendik eskatu,
geiago orlakorik
ez dedin gertatu;
bañan biyotz-biyotzez
ondo errezatu,
itxasora juatian
danak alkar artu,
lagun faltan ez gaitzan
guztiyok tragatu.

Egunkari bakarra zan, oker ez bagaude beintzat, Donostia'n garai artan: *Diario de San Sebastián*. Puska auek berari artuak dizkiogu:

8 enero 1879, miércoles:

«Según se dice, todas las lanchas de la cofradía de Motrico se hallaban esta mañana en alta mar. Ignoramos si habrán sufrido alguna desgracia, debido al fuerte temporal que ha reinado esta mañana en nuestra costa.

* * *

Esta mañana han arribado a nuestro puerto seis tripulantes de los veinte que componían la dotación de una lancha de Zumaya, salida de nuestro puerto, que se ha perdido en alta mar. Reina un fuerte viento y el estado del mar es bastante grave.

Quiera Dios que no tengamos que deplorar más desgracias.»

* * *

9 enero 1879, jueves:

«Según partes recibidos en esta ciudad, el fuerte temporal de ayer ha ocasionado la pérdida de un patrón de una de las lanchas de On-

dárroa, y en Lequeitio ha habido también la pérdida de otra lancha con seis hombres. En Bermeo afortunadamente no ha ocurrido ninguna desgracia que lamentar.»

10 enero 1879, viernes:

«Como complemento a los tristes detalles a noticias que hemos recibido de los naufragios de nuestra costa, publicamos el siguiente parte dirigido a nuestro colega «El Noticiero Bilbaíno»:

«Lequeitio 9, 12 t.

Alcalde al gobernador civil de Vizcaya:

A consecuencia del temporal de ayer ha naufragado la lancha «San Miguel», pereciendo nueve tripulantes. Faltan noticias de la lancha «Jesús y María», que se considera perdida con diecinueve tripulantes. José de Chopieta.»

El mismo diario comenta el parte de la siguiente manera:

«Después de escrito lo que precede, hemos sabido que positivamente son 28 las víctimas de Lequeitio y que la Diputación, vivísimamente impresionada con la noticia de esta nueva catástrofe, se ha apresurado a telegrafiar a aquella villa, enviando a las familias de los ahogados el único consuelo que estaba en su mano enviarles, que es un socorro de diez mil reales con que

puedan atender a sus primeras necesidades, añadiendo en el telegrama que puede venir inmediatamente un comisionado del ayuntamiento a recoger este auxilio.

No necesitamos encarecer cuán de veras aplaudimos el benéfico y humanitario proceder de la corporación provincial.»

* * *

12 enero 1879, domingo:

«También en la vecina provincia de Santander han perecido el día 8 varios infelices pescadores. Dicho día por la mañana salieron tres lanchas de Suances a la pesca de altura, perdiéndose una de ellas y pereciendo de doce a catorce hombres que la tripulaban. Las otras dos lanchas pudieron ganar el puerto, no sin luchar con inmensas dificultades.

Contrista el ánimo, dice con razón nuestro apreciado colega «La Voz Montañesa», la frecuencia con que se repiten estas desgracias y el gran número de víctimas con que tributan al mar todos los años los infelices pescadores de nuestra costa.»

ARRANTZALIAREN BIZITZA

Amabi bertso auk, bi tokitan arkitu ditugu: Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bilduman eta Oxford'ko *Bodleyan Library*'n.

Bertso-paper bat da, bietan argitaraldi bera, *Eibar - Imprenta de Pedro Orúe* moldiztegian argitara emana.

Ez da egillearen izenik esaten. Baiñan guk esan bear bagendu, legorrekoa da. Lendabiziko bertsoan bai, baiñan besteetan ez baitu bere burua itxasoan sartzen.

Urterik ere ez da adierazten. Baiñan papera-
ren eta letraren itxurari begiratuta, joan dan mendearen bukaerakoa dala ematen du.

Paper onek ez du *Bertso Berriak* izenbururik; soil-soillik, or goien ezarri degun beste ori dauka.

1/ Bertso berri batzuek
nijua jartzera,
arrantzalien penak
adieraztera;
txalupa txar batian
guaz itxasora,
legorrik azaldutzen
eztan parajera,
jakin be bueltatuko
geraden etxera.

2/ Orain egonagatik
denbora seguru,
minututik bestera
mudantza artzen du;
aize ta kaskabarrak
zerua illundu,
berak salbatziazatik
treza danak galdu,
arrantzale tristiak
makiña bat lan du.

3/ Etxetik aterata
iru egunian
zenbat sufritzen dute
uraren gañian;
tenpestade gaizto bat
sartzen zaienian,
tristura besterik ez
beren barrenian,
olatuen tartian
ito biarran.

- 4/ Kanpuan egualdiya
txartzen bazaiote,
iñon anparo gabe
arriban datozte;
olatuak jo eta
txalupa urez bete,
Jaunari asten dira
erreguka fuerte,
azkenian meza bat
ofrezitu arte.
- 5/ Ogei legua birian
saiatzen dirade,
eta askotan igual
probetxurik gabe;
gau eta egun beti
peligruan daude,
noizik beiñ egiñikan
partillaren galde,
aben irabaziyak
merezিয়ak daude.
- 6/ Kalara jua ta asten
dirade arrantzan,
zerbait arrapatzeko
ustez esperantzan,
kordelak askaturik
nork bere pobrezan;
gero tenpestade bat
denboren mudantzan,
danak utzita etxera
galdu ez deditzan.

- 7/ Etorritzen danian
gabaren erdiya,
oien ibillera da
lastimagarriya:
farol triste batian
oliyo-argiya,
alkarren anparuan
guztiyak abiya,
sokorritziagatik
beren familia.
- 8/ Kostera geienetan
penatzen dirade,
itxasuan txalupik
galtzen badirade;
nor beren emaztiak
senarraren galde,
eta seme gaxuak
aitarikan gabe,
oien pasadizuak
tristiak dirade.
- 9/ Korajez juaten dira
itxaso erdira,
beren bizimoduan
saiatutzen dira;
mendebalak jotzian
gero erretira,
olatuak jo eta
uraren azpira,
zortzitatikan iru
salbatzen ez dira.

- 10/ Etxetik kentzen dira
oso animoso,
nork bere arraunari
aguro eraso;
aizerik bada gero
beren belak jaso,
galernazo bat igual
ekarri akaso,
kayian sartzen dira
penaturik oso.
- 11/ Lañuak itxasua
diyote zerratzen,
eta bire guztiyak
zaizkate galdutzen;
gero asitzen dira
alkarri galdetzen:
«Aber puertorik iñork
dezuten ikusten,
bertan sartu gaitian
salbatu gaitezen.»
- 12/ Orra amabi bertso
euskera garbieran,
penaz kanta ditzaten
kosta kantabriyan;
galdutzen diradenak
itxaso erdiyan,
negarrak utzirikan
beren familiyan,
Jaunak sartu ditzala
zeruko gloriyan.

(1901)


BERTSO BERRIYAK
ORIYO'KO BALIARI JARRIYAK

1901'eko Maiatzaren 14'an, oriotarrak bale bat arrapatu zuten. Oker ez bagaude, euskaldun arrantzaleak atxitutako azken balea orixe izan zan.

Bale orri buruz, Orio'n beintzat oso ezagunak diran ogei bertso ditugu; orain agertuko degun onako sail au.

Toki asko beteko digu gertaera orren txetatsunak eta bertsoen argibideak emateak. Orregatik, lan ori bertsoen ondorako uzten degu. Auxe bakarrik orain: Bertso-paperak ere, or goiko izenburu ori bera duala.

Baita solfeoz argitara ematen degun doña nundikan degun. Orio'ko Benito Lertxundi abeslariak kantatua da. Bere errian ikasia omen du berak. Arrantzaleak askotan kantatzen omen dute, tabernetan-eta, gaur egunean ere.



1/ Milla bederatzi eun da
lenengo urtean,
Maiatzaren amalau-
garren egunean,
Oriyo'ko erriko
barraren aurrean,
balia agertu zan
beatzik aldean.

2/ Aundiya bazan ere
azkarra ibillian,
buelta an zebillen
jun da etorriyan,
ondarra arrotubaz
murgill igeriyan,
zorriyak zeuzkan eta
aiek bota nayan.

3/ Baña zorri mantsuak
egin zuten junta:
gerra egin biar zala
baliaren kontra,
naiz gogor arraskatu
ez utzi, aguanta,
odola txupatubaz
muturra sartuta.

4/ Zorri asko zeukan da
azkure buruan,
argatik ondarretan
arraskatzen zuan;
ala ere zorririk
kendu ezin zuan,
baliaren indarrak
baliyo etzuan.

5/ Ikusi zutenian
ala zebillela,
beriala jun ziran
treñeruan billa;
arpoi ta dinamitak
eta soka-pilla
aguro ekartzeko
etzan jende illa.

6/ Bost treñero jun ziran
patroi banarekin,
jende bizkor bikaiñ ta
guztiz onarekin:
Manuel Olaizola
eta Loidi'rekin,
Uranga, Atxaga ta
Manterola'rekin.

7/ Bost txalupa aietan
jun ziran gizonak,
arraunian dirade
sendo ta txit onak;
ez dirade balian
kontra lo egonak,
dinamita ikusi
zuben an zegonak.

8/ Baliak egindako
salto ta marruak
ziran izugarri ta
ikaratzekuak;
atzera eragin gabe,
ango arriskuak,
arpoiakin ill zuten,
an ziran anguak! (1)

¹ Puntuak onela bertso-paperetan: marrubak, irakatzekuak; arriskubak, angoak.

- 9/ Bost txalopa jiran da
erdiyan balia,
gizonak egin zuten
bai naiko pelia;
ikusi zutenian
ill edo itoa,
legorretikan bazan
biba ta txaloa.
- 10/ Sokaz amarratuta
jarririkan zagan,
jendia arraunian
gogotik asi zan;
baña maria kontra,
naiko lana bazan,
ala ere eguardiko
balia erriyan zan.
- 11/ Ikusteko gauza zan
ura legorrian,
osorik zaguala
illdako egunian;
itxura galdu zuan
gero egonian,
mermatu ta txikitu
bigundu zanian.

- 12/ Amabi metro luze,
gerriya amar lodi,
buztan pala lau zabal,
albuetan pala bi;
ezpañetan bizarrak
beste illera bi,
orraziak bezela,
ain zeuzkan ederki.
- 13/ Begi txikiyak eta
abo txit aundiya,
obeto esateko
ikaragarriya;
metro bi zabaltzen zan,
au da bai egiya,
larru guziya goma,
ura animaliya!
- 14/ Gauza ikusgarriztat
egun batzuetan
erriyaren ondoan
arranplan egon zan;
urrutitikan ere
jendia etorri zan,
milla pezetarañon
diruba bildu zan.

15/ Errematian gero
jarri zan saltzeko,
sei milla errialian
almoneratzeko;
iñork etzuan artu
balia ezertako,
baña baliyo zuan
koipe biurtzeko.

16/ Koipe biurtu eta
aren oliyoa
irureun arrua zan
klase onekoa;
zazpi milla errial
aren baliyoa,
errematia baño
protxu obekoa (2).

17/ Gorputzez zan milla ta
berreun arrua,
beste berreun mingaiñ
ta tripa barrua;
gutxi janez etzegen
batere galdua,
tiñako sei pezetan
izan zan saldua.

² Bertso-paperetan bertso onek puntuak onela: oliyua, onekoa, baliyua, obekoa.

18/ Eun da ogei duroz
balean bizarrak,
aguro saldu ziran
bere egaltzarrak;
garbitu ta gordiak
dauzke ezurtzarrak,
kontu aundiyarekin
lodi ta medarrak.

19/ Egindako gastubak
pagaturik danak,
lau bat milla pezeta
gelditu diranak;
ondo goza bitzate
oriotar danak,
saiatu diralako
eman diye Jaunak.

20/ Gertatuba jarri det
egiyaren alde,
au orrela ez bada
jendiari galde;
biyotzez pozturikan
atsegintsu gaude,
biba oriyotarrak
esan bildur gabe.

Bertso auk argitaratu dituzten paperak, oso aldaketa gutxi dute alkarrekin. Guk, andik eta emendik, erarik jatorrena iduritu zaigun ura artu degu onerako, batetik bestera berdinean. Ona orain argitaraldi oien zerrenda eta baikoitzaren aldaketak, guk bertsoak idatzi ditugun modura ez daudenean.

Bertso-papera, «*Tip. Elustondo - Zarauz*», Orión, Joakin Aldabe zanaren eskutik jaso. 1/6: barraren urrean; 1/8: bederatzik aldean; 5/6: eta soka billa.

Bertso-papera, «*Imp. Macazaga - Rentería*», bertan jaso; 1/6: barraren urrean; 5/6: eta soka billa; 8/3: ziran izugarriya; 11/3: osorik zaguna; 12/1: Amabi metro t'erdia; 12/4: albueta pare bi.

Donostia'ko *Etor* argitaldaria orain berriro azalduak ditu bertso auk, bere *Euskaldunak - Euskal Etnia* saillaren zazpigarren alean. Baita balearen argazkia ere, txaluparen ondotik «sokaz amarratuta jarririka zagan». Bertsoak eta argazkia nundik dituan, onela adierazten du: «... oietan (bertsoetan) izendatzen dan Manterola'tar Gregorio'ren billoba batek bere etxeko orman daduzka, argazki ontan bezela. (*Bodegón Jose Mari*)». Ikustera joan giñan, baiñan alpeirik. Norabait eramana zuten, markoa berriztatzeraredo. Baiñan, esan zigutenez, ez da inprentakoa, makinaz idatzia baizik. Beste bat ere ikusi genduan Orión olakoxea: balearen argazkia, inguru guzian bertsoak makinaz idatzita eta kuadro batean jarrita. Eta aldaketa gutxi: 5/6:

eta soka billa; 11/1: ikuste gauza zan; 12/3: bustan pala lan zabal; 14/5: urrutikan ere.

Ibaizabal astekariak, 74 zenbakian, 1903.V. 31'an: amazapi bertso; iru falta: 3, 4 eta 10'garrrena. Besteen aldaketak: 1/8: bederatzi aldean; 2/3: an zebillen biraka; 2/4: joan etorrian; 2/5: arrotuaz ondarra; 7/8: zuen an zeudenak; 11/7: gutxituaz naikoa; 17/7: tiñako sei pezeta; 19/8: eman zien Jaunak. Eta fonetismoak kendu eta itzak gramatikatzen ibili da eskuren bat or tartean.

M. Ciriquiain Gaiztarro: «*Los vascos en la pesca de la ballena*», Zarauz, 1961. Liburu onek ere baditu bertso auk. Aldaketak: 6/3: jende bizkor bikaiñ; 11/1: ikuste gauza zan; 14/5: urrutikan ere; 17/4: ta tripa barruak.

* * *

Basarrik bi bider beintzat itzegin du bale onetzaz. Lenengoan erderaz, *La Voz de España*'n, 1964-II-13'an. Urrena euskeraz, *Zeruko Argia*'n, 1965.III.21 eta 28'an eta 1965.IV.4'an. Idazlan auetatik puska batzuk onera aldatu nai ditugu.

Bertsoetan ez da egillearen izenik ageri. *Ibaizabal*'ek, bertsoen atzetik, onela dio: *Florentino Abarrategui. Mondrago-en*. Erri ontakoa bazan, etzan ura bertso auen jartzallea. Bertso auk, Orio'ko edo oso inguruko bertsolaria eskatzen

dute; gertaera bere begiz ikusi zuana, alegia. Basarrik onela dio onetzaz erderazko idazlanean:

«Según uno de los que tripularon en el lance la trainera de Achaga, los versos fueron compuestos por un sacerdote, natural de Orio, apellidado Orbegozo. Ejercía su ministerio en Zumaya.»

Guk ere gauza bera entzun genion orain urte batzuk Orio'ko Gregoria Ibarгойen zanari: bertso auk apaiz batek jarriak zirala, aren izen-abizenik esan ez bazigun ere.

Bertsoen balioaz, berriz, iritzi au ematen du Basarrik:

«Bertso bezela eztute balio geieirik, gure iritzian. Gauzak zer eta nola gertatu ziran garbi adierazten du bertsolariak. Argatik irakurtzen degu arretaz bere lana ta ez bertsoen merituagatik.»

Iritzi orrekin batera gatoz gu. Bertso auen jartzallea ez da ofizioko bertsolari bat; baiñan kontatera oso bizi eta xuxen eramaten du. Ori ere zerbait bada; ez du edozeiñek egiten. Zerbaitegatik dira ain ezagunak Orio'n, gaur egunean ere, bertso auk.

Bostgarren bertsoaren laugarren eta seigarren lerroak onela daude bertso-paperetan: «treñeruan billa» eta «eta soka billa». Bertsogintzaren legeekin gaizki uztartzen da ori. Basarrik onela dio:

«Poto bat arkitzen degu garbi garbia. «Billa» bukaera bi aldiz agertzen baizaigu. Bear

bada bertsolariak «soka pilla» idatziko zun eta inprentan «soka billa» jarri.»

Gu ere, inprentaren okerra dalakoan gaude. *Ibaizabal* aldizkarian «eta soka pilla» baitago. Esan-naia ere obeto dator orrela. Orregatik, *Ibaizabal*'ek bezela idatzi degu guk.

* * *

Jose Artetxe zanak, bere *Mi viaje diario* liburuan (Zarauz, 1950), atal bat egin zuan bale onetzaz, esakizun guziak bertso auetatik artuta. Aurreko oar batean, bertsoak nola eskuetaratu zituan adierazten du:

«Ayer por la mañana, un viajero, por las trazas pescador, me entregó con gesto tímido una hoja de versos —de «bertso berriyak»—. Vieja improvisación anónima que celebra la captura de una ballena en la barra de Orió..., que los pescadores de ese pueblo publican ahora nuevamente en memoria de aquel suceso... Aquel buen pescador creía al entregármelos que su interés rebasaba el marco local, y yo, después de leerlos, siento lo mismo. Tú, lector, dirás si estamos en lo cierto.»

* * *

Fabian Loidi apaiz jaunak, *Goiz-Argi* aldizkarian, 1975-II-5'an, olerki eder bat argitaratu

zuan orain darabilkigun gai onetzaz *Bale arrantz*a izenburuarekin.

* * *

Erdal egunkariak ere mintzo dira bale onetzaz. Oiek diotena irakurrita, bertsoak ere obeto ulertuko dira, naiz-eta alkarrekin batera ez etorri txeetasun guzietan. Ona, adibidez, Donostia'ko *La Unión Vascongada*'k zer zion biaramonean, 1901-V-15,an alegia:

«A las nueve de la mañana de ayer, varias lanchas que venían atestadas de sardinas en dirección a este puerto, vieron aparecer a flor de agua una enorme ballena, a una milla de distancia de donde ellos se hallaban.

El cetáceo empezó a arrojar agua por las fosas nasales, haciéndola elevar a una altura considerable.

Los marinos de las lanchas indicadas, al ver la ballena, observaron que venía persiguiendo a ellos y redoblaron sus esfuerzos para alcanzar el puerto.

Al llegar las embarcaciones a las inmediaciones de la entrada de la Concha, se fijaron que el perseguidor cambió de rumbo y marchó mar adentro.

Los marinos cuando entraron en el muelle nada dijeron, para evitar que salieran los pes-

cadores, pues ellos determinaron volver convenientemente preparados con arpones y otros útiles a la pesca del cetáceo, después de vendida la sardina que traían.

A las diez y media se presentó uno de los vapores Mamelenas en la Concha, cuyos tripulantes dijeron que a la altura de Zumaya habían visto la ballena.

Entonces salieron del puerto de esta ciudad diez lanchas, tripuladas cada una de ellas con once hombres, y después de hora y media de ir remando mar adentro sin que nada vieran, observaron al estar cerca de la altura de Guetaria que salían del puerto de Orio cinco lanchas y formaron un semicírculo a una milla del puerto, quedando a la expectativa.

Nuestros marinos redoblaron sus esfuerzos con el fin de unirse con los de Orio, pero antes que éstos llegaran, la ballena, que se veía acosada por los valientes marinos de Orio, entró en el muelle y allí, de ocho arponazos que le arrojaron, le produjeron seis heridas que le causaron la muerte.

La ballena mide 12 metros de largo por 10 de diámetro.

Según nos refirieron, hoy será remolcada a la Concha de esta ciudad y conducida al arenal del barrio del Antiguo, donde será expuesta al público durante ocho días, y después vendida a una casa industrial.»

* * *

Donostia'ko beste egunkari batek, *El Correo de Guipúzcoa*'k, onela ematen zuan Orio'ko balearen berri, 1901-V-15'an:

«Ayer a las doce del mediodía fue vista por algunos pescadores de Orio una enorme ballena que había varado en la playa llamada «Las Antillas», desembocadura del río Oria.

Inmediatamente salieron cinco lanchas, cuyos tripulantes, provistos de arpones, acorralaron al cetáceo y le dieron muerte .

Con gruesos cabos y no sin grandes esfuerzos lo sacaron a tierra, dejándolo depositado debajo de un tinglado frente al puerto, a donde acudió todo el pueblo de Orio.

Mide 12 metros de largo y ocho de circunferencia.

Este hermoso animal es el mayor que se ha cogido en estas aguas, según nos dijeron algunos marinos.

Supónese que dicha ballena entró en estas aguas acosada por la flota ballenera que hace días salió del Norte de Francia, y herida y desorientada embarrancó en el punto antes mencionado.

Una comisión de marinos de Orio, vino ayer tarde a esta ciudad con objeto de proponer la venta del cetáceo al señor Lizarriturry, después que lo hayan exhibido varios días al público.»

Balea erituta zegoanik, emen besterik ez da esaten eta ez degu uste ori orrela zanik. Baiñan

Ipar-Frantzia'ko arrantzaleak uxatuta etorri zala, ori egia izan diteke, Kantauri itxasoan balerik etzala urte pilla aundia baitzan.

Andik bi egunera, 1901-V-17'an, onela zion egunkari orrek berak:

«Un gentío inmenso acudió ayer a Orio con objeto de ver el enorme cetáceo muerto por los pescadores de aquel puerto.

De San Sebastián y casi todos los pueblos fue gente, calculándose en unas 1500 a 2.000 personas las que desfilaron por delante de la ballena, pagando el módico precio de dos reales, que suman un total bastante regular.

Además, los afortunados marinos vendieron ayer 16 tinas de tripas de la ballena a nueve pesetas tina, y todavía esperan percibir 2 ó 3.000 pesetas por el cetáceo.»

* * *

Eta Orio'ko Erriko Etxean, bostgarren agiri-liburuan azaldu danez, erabaki au artu zuten 1901-VI-6'an:

«En la Sala Consistorial de esta Villa de Orio, a seis de junio de mil novecientos uno, bajo la presidencia de D. Francisco Ayestarán, Alcalde de la misma, se reunieron en sesión extraordinaria D. Calixto Arin, D. José María Salsamendi, D. Antonio Mutiozabal, D. Antonio María Loidi, D. José Luis Aróstegui y D. Juan

Sagarna, Concejales, y con asistencia de mí, el Secretario, se trató y se acordó lo siguiente:

Enterados del contenido de una instancia suscrita y presentada al Ayuntamiento por los patrones de cinco lanchas traineras de este puerto, llamados D. Gregorio Manterola, D. Manuel Loidi, D. Eustaquio Achega, D. Manuel Olaizola y D. Cesáreo Uranga, solicitando una subvención para ellos y 55 tripulantes más que consiguieron pescar una ballena grande en la embocadura de esta ría Oria el día 16 de mayo último,³ y reportando bastantes ingresos, tanto a los fondos municipales, como a los posaderos y taberneros durante los días que ha estado expuesta al público dicha ballena, por la aglomeración de la gente que ha acudido a ver la expresada ballena, y tomando en consideración lo expuesto por ser cierto, acordaron por unanimidad darles del capítulo de imprevistos del presupuesto, la cantidad de CIEN pesetas para que hagan una merienda.»

³ Ontan oker dago: Maiatzaren 14'an il zuten balca.

(1901)

BERTSO BERRIAK
«OGEIGARREN SIGLUAN LENENGO
URTIAN...»

Bertso auk ere, aurreko beste oiek bezela, oriotarrak ildako bale orri berari jarriak dira. Oxford'ko *Bodleyan Library*'tik izan ditugu, «*Imp. y Lib. de V. Iraola*» moldiztegian argitara emandako bertso-paper batetik.

Lenengo lau bertsoetan balea nola il zuten kontatzen zaigu eta irugarren pertsonaz erabiltzen du aditza bertsolariak. Besteak ari dira lanean; ez bera. Baiñan laugarren bertsoaren bukaeran, balea mollara sartzen duten ezkeroztik, guka asten da izketan eta azkeneraiño ala jarraitzen du. Gure iritzirako, auxe atera genezake ortik: bertsolaria etzijoala balea atxitu zuten treñeroetan, baiñan oriotarra zala.

Nor ordea? Izenik ez digute bertsoak esaten eta orain ezin askatuko degu korapillo ori. Ga-

rai artan bazan Orio'n bertsolari ezagunik: Errikotxia (1855-1932), Itxaspe (1857-1932), Gaztelu (1857-1932). Au Aginaga'ko partean bizi zan, baiñan Orio'ko muga-mugan, eta oriotarra etzanik etzitzaion ez berari ez beste iñori burutik pasako. Fermin Imaz (1879-1929), Donostia'n jaioa izanik ere, Orio'ko Ortzaika ballaran bizi izan omen zan bolara batean. Baiñan bertso auei ez diogu aitaturako bertsolari oien joskerarik arkitzen.

Txomin Ortzaika ere ba omen zan beste bertsolari bat Orio'n. Baita Lixargarate esaten zioten beste bat ere. Baiñan oien bertso-joskera nolakoa zan, batere ez dakigu. Eta Axentxio Txanka (1890-1961) gazteegia zan orduan lan oietarako.

Umezurtz gelditu beariko dute, beraz, bertso auek. Baiñan, guk esan bear bagendu, bertso-gintza ondoegi ezagutzen ez duan baten lana dirudite.

Azken bertsoak onela esaten du: «alde askotan aziyo aundik egiña da aurten Oriyo.»

Balea iltzeaz kanpora, aziyo bakarra ezagutzen degu guk urte artan Orio'k egiñik: Donostia'ko estropadetan lenengo bandera irabaztea. Ain zuzen, treñeroaren patroia Manuel Olaizola izan zan, balea arrapatzera atera ziran patroioietako bat. Gerraz geroztik il omen zan.

Baiñan, estropadak Iraillean izaten baitira, bertso auek etziran balea arrapatu eta bereala jarriko; andik denbora-puska eder batera baizik.

- 1/ Ogeigarren sigluan lenengo urtian
maiatzaren amalaubia,
Oriyo barran plaian sartu zan
erriyo aldera balia.
Ekusitako denbora au da:
goizeko beretzik dia;
erri onetan bost treñerotan
okupatu da jendia,
al dan lenena preparatuta
berarengana juan dia.
- 2/ Patroiak ziran Manuel Loidi,
Manuel Olaizola,
Eustakio Atxaga eta
Gregorio Manterola,
bostgarrena Zesareo Uranga;
oiek giyari zirala,
tripulaziyo ederrarekin
jokatu diraren nola,
baliarekin arriskatu'ute
beren gorputzeko odola.
- 3/ Otso zarrari parada artzeko
eiztari onak biar dira,
zenbait mariñel bale-kontuban
berriz alakoak dira.
Zorri botatzen ai zan bitarten
artu ziyoeten jira,
oñaze txar bat tira zitzaion
bere biyotzen erdira,
denbora labur desmaiatu zan,
an izan zan despedira.

- 4/ Bost treñeruak ikusitzian
pieza arri ezarrik,
arraunketa gogoz asi zan,
etzan agindu biarrik.
Legorretik bazan txalo ta
biba edo deadarrik,
iru orduban lan au egiteko
eztu izan biar alperrik,
amabitako mollara gendun,
oriotarrak bakarrik.
- 5/ Kostadun zitun pala ederrak
korritutzeko urian,
amabi metro luzerakuak
ta amar gerriyan jiran,
beste lau zabal buztana zuban,
aren neurrik onla ziran;
milla ta berreun arrua bera
ekarritako klasian,
beste berrogei ta bost aboan zitun
mingañian eta grasian.
- 6/ Egun da berroi ta amar arrua
tripan ere bazeguan,
sei peztan tiña erosi eta
sartu zueten soruan.
Operaziyo ona egin zun,
lurrak artu zun goguan;
nekazaritatik jenero aren
ai zer eskia daguan,
geiago balerik azaltzen ote dan
dabiltza erreparuan.

- 7/ Errematian ipiñi gendun
milla ta bosteun pezetan,
iñork kasorik etziyon egin,
etzuten artu ezertan.
Gero urtuta abitu giñan
tokatzen zaizkan klasetan,
irureun arrua oliyo eder
dezente zaukan koipetan,
zazpi milla errialen saldu giñun,
ez giñan erten kaltetan.
- 8/ Egun batzuetan ekusgarriztat
apropos eduki genduban,
milla pezeta bildu ziraden
jendiarekin orduban.
Aora begira asitzen ziran
jarririk bere onduan,
izan ere aren balleneriya
gustagarriya zeguan,
azkenen aiek saldu ginduban
egun da ogei duruan.
- 9/ Amairu milla errialeraño
balia zitzaigun iyo,
oroipentzat ezurrak daude,
aiek ere dute baliyo.
Erriyak eztu kalterik izan
arrau au dala meriyo,
gauzari ondo konsideratuz
erreparatzen bazayo,
alde askotan aziyo aundik
egiña da aurten Oriyo.

(1905)

BERTSO BERRIAK ORKOLAGA JAUNARI

Amazazpi bertso auek nundik izan ditugun, zenbat bider argitara atera diran eta argitaraldi bakoitzaren aldaketak, bertsoen atzetik azalduko degu.

Egillearen izenik ez da esaten. Bertsozale bati, gero adieraziko degunez, Gaztelurenak zirala entzun nion. Baiñan gauza segururik edo garbirik ezin jakin.

Izenburua orrelaxe dute bertso-paperak ere; or goien ezarri degun bezela.

Orkolaga jaun ori, «Zarautz'ko bikarioa» alegia, galernak alde aurrez somatzen lenengoa izan zan. Aren bizitzaren berri bertsoen ondoren emango degu. Ori irakurrita, bertsoak diotena obeto ulertuko da.

1/ Beatzireun da bost urte
kunpliturik milla,
Jesus, Zugana nator
laguntzaren billa,
argitu dediñ nere
talentu debilla,
nola dan Gipuzkoa'n
gizon bat abilla,
bi bertso paratzera
saiatu nadilla.

2/ Igeldo'n degun apaiz
astronomu ori
azañak gustabliak
egiten da ari;
lengo profeta zarrak
aña jakinduri,
gazterik ikasiya
daukala diruri,
esperientziya franko
jartzen digu guri.

3/ Gelditzia nai zuten
Bizkai'ko lurrian,
gustua izan balu
paraje ederrian;
eskerrak daukagula
gugandik urrian,
naiz itxasuan eta
igual legorrian
asko arkitzen gera
orren biarrian.

- 4/ Orren anuntziyuaz
baliatzen gera
zortzi urte onetan
gutxi gora-bera;
estimatzeko diña
badu ezaguera,
talento aundikua
izanduba bera,
beti portatzen zaigu
gizonen legera.
- 5/ Ernani'ko semia,
Zarautz'en izana,
erriko bikariyo
zeguen pertsona;
anparo dubelako
goiko juez ona,
Orkolaga'k badauka
abillaren sona,
zeñek eztu maiteko
orlako gizona?
- 6/ Denborari igartzeko
zerbait aparatu
ongi-eille onen batek
zizkan preparatu;
paraje gustokua
berak aukeratu,
milagroso batekiñ
nai det konparatu,
peligro askotatik
gaitu anparatu.

- 7/ Gabetan zaitzen diye
 izarrari dantza,
 lo asko egiñ gabe
 arturik zalantza;
 sentitzen dubenian
 trumoiaren antza,
 aiziak noiz dakarren¹
 denboren mudantza,
 aguro somatzeko
 badu segurantza.
- 8/ Egun batez aurretik
 jakiten zuben len,
 tenpestadia noizko
 allegatuko den;
 enemigua franko
 len izandu arren,
 ikusirik pruebak
 zer onak diraden,
 orain sinistatuta
 orra nola dauden.
- 9/ Abertentzi txiki bat
 izan ezkeroztik,
 kanpuan korrituta
 eztu egiñ festik;
 bizi nai dubelako
 Bizkai'ez onunztik,
 Igeldo'ra etorri
 zitzaigun Zarauz'tik,
 len baño trebiago
 jarri da geroztik.

¹ Bertso-paperak: *aizia noiz dacarren.*

- 10/ Aparatu bat palta
zuben oraindikan,
gero logratu zuben
erregeandikan;
denboralia noiz dan
Norte-amerika'n,
antza ematen diyola
eztu dudarikan,
noizko etorriko dan
onera andikan.
- 11/ Kanpoko txalupa ta
bapore tristiak
pena ematen diyo
galtzen ikustiak;
erretiratzen ditu
orren albistiak,
argatik egiñ dizka
esku-erakustiak
Alfonso amairugarren
errege gaztiak.
- 12/ Bizi-lekua dauka
puntu erosuan:
Igeldo'ko mendian,
kostako inguruan;
anima asko salbatu
digu itxasuan;
ibilli izan balitz
beti deskansuan,
orrenbeste onore
jasoko etzuan.

- 13/ Sufritu ezin dutenak
orrek ere izan,
aritu det gau batez
nola ibilli zan:
kulpik etzuben baño
bastante larri zan,
gaiztuaren kontrako
defentsan jarri zan,
oraiñ guardiya dauka
komeni dan gisan.
- 14/ Orkolaga jaun ori
jarri da kontuan,
kuidadoz bizitzeko
dabilen puntuan;
ala ere gelditua
ezta gorrotuan,
erori gabetanik
bera pekatuan,
disimulatu nai du
ori sekretuan.
- 15/ Opiziyo on orri
al baleri eutsi,
gazte artako bati
nai diyo erakutsi,
logratziagatikan
zerbait segurantzi;
mundutik juango balitz
biyar edo etzi,
bere lekuan nai du
ordezkua utzi.

16/ Au egitiagatik
jaun orren firmeza,
etzuben disponitu
modu alrebesa;
gauza penosua da
anparorik eza,
askoren meseretan
egindako promesa,
suerte onarekiñ
konserbatu beza.

17/ Onra eder aundi bat
jaso du Ernani'k,
seme onak agertzen
diralako andik;
au gabe ez genduban
alibiyo onik,
iñori ez ukatu
merezi dubenik,
errespeta dezagun
graziyak emanik.

* * *

Bertso auek, toki edo iturri auetatik eskue-
taratu ditugu:

Bertso-papera, «*Imprenta de Pedro Orúe.—
Eibar*» moldiztegian argitara emana, Errenteri'ko
Joakin Ganborena Zabala'ren eskutik.

Bertso-papera, «*Imp. y Lib. de F. de Elosu. Durango*» moldiztegian argitara emana, Gregorio Mujika zanaren bilduman. Aldaketa: 4/8: izandu da bera.

Bertso-papera, «*Azpeitia Imp. de P. Martínez é hijo*» moldiztegian argitara emana, Azpeitia'ko Fidel Uria apaiz jauna zanaren paperetan. Aldaketak: 6/3: ongille onen batek; 9/9: len baño ermiago; 16/1: On egitiagatik.

Ernani'ko Antonino Pagola zanak idatzi eta 1959-VI-9'an bialduta, orden onetan: 1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 6, 10, 9, 12, 11, 13, 14, 15 eta 17'garrena; eta 16'garrena falta. Aldaketak: 1/1: Barrendik prestaturik; 1/2: txit biotz umilla; 1/3: Zugana nator, Jesus; 1/5: lagun batek agindu; 1/6: dizkit esker milla; 2/3: azaña gustabliak; 3/6: guk gere urrean; 4/8: izandu da bera; 6/3: ongi egille batek; 8/8: zein onak diraden; 11/6: aren albisteak; 11/7: argatik egiten dizka; 13/9: orain guardiak dauzka.

Zizurkill'en jaio eta Usurbill'en bizi dan Federiko Otegi'k, lau bertso eman zizkigun, 2, 9, 10 eta 11'garrena, Gazteluk jarriak zirala esanaz.

Baditeke orrela izatea. Gaztelu Aginaga'ko partean bizi zan, Igeldo eta Orio bitarteko mendi luze orren egal batean, eta bertso auen egillea Orkolaga'ren urrean bizi da, berak esaten digunez.

Aldaketak: 2/1: Igeldo'n dakagun apaiz; 2/6: ainbat jakinduri; 2/7: gazte-gaztetandikan; 9/1: Diferentziya pixkat; 9/2: izan zan ezkeroz-

tik; 9/3: kanpua ta Oriyoko; 9/4: ezta egin festik; 9/5: bizi nai zualako; 10/5: antza emate'iola; 10/6 ezta dudarikan; 10/7: denboralia noiz dan; 10/8: Norte-amerika'n; 10/9: onera noizko etorri; 10/10: liteken andikan; 11/1: Pena ematen diyo; 11/2: galtzen ikustiak; 11/3: kanpoko txalupa ta; 11/4: bapore tristiak; 11/5: erretiratze'itu aguro; 11/9: amairugarren Alfonso.

* * *

Juan Miguel Orkolaga Ernani'n jaio zan, Aldapa izeneko etxean, 1863.X.13'an.

Egualdiaren gora-berak igertzeko zaletasuna txikitandikan izan zuan. Lañoen itxura eta ibillerak, aizearen indarra eta joerak, izarren argia eta keñuak, egunsentiko eta illunabarreko koloreak zer-nolakoak ziran, begira ura beti. Onyi mendian, zugaitz batetik bestera lokarri bat lotu eta andik, au goraxeago eta bestea beeraxeago, pote zar batzuk zintzilik jarri zituan, eta ara igotzen zan, aizeak nola mugitzen zituan ikus-tera.

Amabost urte zituala, Ameriketara joan zan osaba apaiz batekin. Bidean, egualdi ona zegoala eta Pernambuco iriaren parean zirala, ekaitza zetorrela esan zuan arratsalde batean. Baita gau erdirako etorri ere, tximista, trumoi eta kaskabarra ederrakin. Mariñelak arrituta gelditu ziran.

Buenos Aires'en, apaiz-ikasketak egiten asi zan. Baiñan lurralde arek ondo artu ez, osasunez makaldu eta atzera Ernani'ra etorri zan.

Gazteiz'en jarraitu zituan ikasketak. Bein baiño geiagotan, egualdi ederrarekin paseatzera irten eta arek guardasola galtzarpean; orduan lagunak burla, baiñan etxerakoan bera bakarrik legorrik.

Ernani'ra oporretara etortzen zanean, berak asmatutako tresna batzuk jartzen omen zituan tellatuan, aizea neurtzeko. Gurasoak, andik eroriko zan bildurrez, erritan egiten zioten.

1888'eko Martxoan egin zan apaiz. Beizama'ra bialdu zuten, lenengo koajutore eta gero erretore. Andik, Ernani'ra koajutore. Ta 1893 urtean, Zarautz'ko erretore edo bikario izendatu. Emendik asi zan aren fama zabaltzen. Orregatik, «Zarautz'ko bikarioa» esaten zion erriak. Gaur ere, ala esan oi diote arrantzale ta nekazari zaarrak.

Zarautz'en txabola bat egin zuan. Bere tresnak ara eraman eta al zuanean, naiz gauez eta naiz egunez, ara joaten zan, egualdiaren goraberak zaintzera.

Apaiz-lanetan ere oporrik etzuan. Asko zekiana zan. Santo Tomas eta Balmes zituan idazlerik gogokoenak.

Benetako euskaltzalea izanik, lanen batzuk bazituan euskeraz. Enziklopedia bat ere bai. Nun ote da gaur?

1899'an, Tarazona'ko kanonigo nai izan zuan. Moncayo andik urbil xamar eta mendi ura toki ona izaki egualdia zaintzeko.

1900-XI-15'an, onako abixu au bialdu zien Bizkai'ko eta Gipuzkoa'ko diputazioai: ekaitz gaiztoa zetorrela eta itxas-erriak lenbailen jakiñaren gainean jartzeko. Bai ala gertatu ere. Bapore aundiak ere, Bilbo'ko kaiean gelditu bear izan zuten. Ortikan pentsa txikiekin zer gertatuko zan itxasoan, arek abixatu ezean.

Andik aurrera, askotan adierazi zuan aurretik egualdiaren aldaketa. Zenbat bizitza salbatu ote zituan? Orduko arrantzale-ontziak artean belakoak eta itxaur-azalaren urrengo baitziran, esate baterako. Mariñelak *Padre Borrascas* ere esaten zioten. Kasorik egin etziotenak ere izan ziran, baiñan aietako batzuek biziarekin pagatu.

Batean, galerna bidean zala arek gaztigatu arren, Santander'en entzungor egin eta balandro-estropadak asi, Alfonso amairugarrenak ere parte artuz. Itxasoak zakartu zanean, gerra-ontzi batek atera bear izan zuan erregea. Onak bixita egin zion Orkolaga'ri andik egun batzutara.

Bizkai'ko eta Gipuzkoa'ko diputazioak, arenzat *observatorio* bat egitea pentsatu zuten. Bizkai'koak Matxixako'n nai zuan, Gipuzkoa'koak Igeldo'n eta etzuten alkar artu. Azkenean, Gipuzkoa'koak bakarrik Igeldo'n egin, lenengo beste toki batean eta ondoren gaur dagoan ortan.

Arrezkero, Orkolaga'ren fama Euskalerriko mugak eragin eta mundu guzira zabaldu zan.

Idazlan asko bialtzen zituan España'ko eta kanpoko aldizkarietara.

1909'eko qalernaren abixua ere aurretik eman zuan. Baita 1912'ekoa ere. Aldi ontan, aren deia garaiz iritxi zan Gipuzkoa'ko itxas-errietara eta iñor gutxi galdu zan emengo arrantzaleetatik. Baiñan Bizkai'ko zenbait tokitan, Bermeo'n beintzat, telegrama-edo jaso zuteneko, mariñelik geienak itxas zabalean ziran eta erri ontatik bakarrik eunetik gora gizon ito ziran.

Igeldo'ko baserritar zaar batek onela kontatu zigun bein batez:

«Egun artan belarretan ari nintzan ni Mendizorrotz aldeko sail batean. Egualdi ona zegoan. Alakoren batean, Orkolaga bidean zetorrela ikusi nuan. Onela esan zidan: «Belar oiek bildu itzazu eta eraman lenbailen, zu etxera baiño leen euria asiko du eta». Bai ala gertatu ere.»

Baiñan ikusi ezin zutenak bazituan arek ere. Il zan adiskide bati entzun nionez, batenbatek aren txakurra artu, lepoan bonbaren bat-edo lotu eta bialdu egin zuan. Adiskide orrek kontatu zidana ez nuan orduan idatzi, eta geroztik erdi atzendu eta orain ezin galdetu. Txakurra nagusiarengana baiño leen bonba lertu edo nagusiak garaiz askatu edo olako zerbait zan. Orkolaga'k miñik artu ez beintzat eta aurrerantzean erne ibili. Sail ontako 13 eta 14'garren bertsoak billaukeri orren aitamena egiten dute, dudarik gabe.

Orkolaga, 1914-IX-22'an il zan.

Ura, gorrotatzen zuten bakar oiek bazter utzita, Euskalerriko gizonik maitatuenetako bat izan zan. Bertsolariak ere, emen ikusten degunez, gorraldu zuten. Baiñan orain baiño leen ere aren aitamenak egin dira *Auspoa*'n. Ikus, adibidez, Fermin Imaz'ek diona: *Auspoa* 24, 40 eta 55 orri-aldeetan.

(Orkolaga'ren berri auek, iturri auetatik artu ditugu: zenbait zaarren aotik; *Euskal-Erria* al-dizkaritik, 71, 1914; 44, 1901; 45, 1901; *El Diario Vasco*'tik, 19-V-1974, Fabian Loidi: *El pedestal de Orkolaga*.)

* * *

Orkolaga'ren fama eta ospea zer izan ziran, ondo aditzera ematen du izketaldi onek: ²

«— Kaixo, Iñaxio.

— Ongi etorri, Erramon.

— Zer berri Zarautz'en?

— Etzegok nobedaderikan, Jainkoari esker-rak; jakingo dek berriz bikario berria daukaguna.

— Bikario berria? Nun dek bada lenagokoa?

— Igeldo'n bizi dek.

— Zer egiten dik bada Igeldo'n?

² Jose Ramon Jauregui: Izkirimiriak, Ibaizabal as-tekarian, 20 zenbakian, 1902-V-18'an.

— Itxasora begiratu, eta gogoak ematen diorean urrengo egunean eguraldi txarra egin bear duela, joaten dek fonofonora eta aditzera ematen dik gure diputazioari esanaz: biar eguraldi txarra, esan mariñelari.

— Eta asmatzen dik?

— Bai, lagun zarra, beti.

— Bai al daukak ezaguerarik berarekiñ?

— Aundia; biar ere elkarrekin egongo gaituk.

— Orduan mesede bat egin bear dirak. Esan egiok, Jaungoikoaren izenean, adierazi dezela al dan laisterren, egualdi onak noiz egingo dituen, jendea txarrez aspertuta dagoala-ta.

— Nere kontu; egon lasa, biar bertan esango zioat.

— Agur.

— Adio.»

(1906)

BERTSO BERRIAK
ERANDIO'RAKO JARRIAK

Bertso auek, Gregorio Mujika zanaren bildumatik ditugu. «*Valverde - Irún*» moldiztegian argitara emandako bertso-paper bat da. Izenburua, or goien ezarri degun bezela dauka.

Egillearen izenik ez da esaten. Baiñan, izkerak agertzen duanetik, Bizkaia ta Gipuzkoa bitarteko muga aldeko bertsolariren bat dala esango genduke.

Gertaera zer izan zan, bertsoak ederki adierazten dute: 1906'eko Otsaillaren 26'an, iñauterietako igandeaz ain zuzen, amasei lagun Erandio'tik Barakaldo'ra pasa, arratsaldea an alaiki igaro eta etxeruntz zetoze, kargak ontzia ur-azpiratu eta bederatzi lagun ito.

Ito ziranak arrantzaleak ez izanagatik eta oker ori itxas zabalean gertatu ez bazan ere, bertso auek liburu onetan sartu bear zutela dudarik ez da.

1/ Milla eta bederatzireun
au da seigarren urtian,
desgrazia bat pasatu dana
Erandio'ko partian;
negarra franko eragin dute
familiarren artian,
zenbat disgustu izango zuten
pensatzen jarri gaitian.

2/ Otsaillaren ogei ta seia
egun gogoragarria,
tristuriaren lutoz jantzi zan
Erandio'ko erria;
euren gorputza uren azpian
ainbestek zuen utzia,
zeruko Aita, eduki bedi
arren miserikordia.

- 3/ Orretarako ziran egunak,
juan ziran erromerira,
dibersiyua zeuan lekura,
Barakaldo'ko errira;
arratsaldia an pasatuta
illuntzian erretira,
bote batian amasei lagun,
danok ziraren azpira.
- 4/ Desgraziaren billa zetozen
guztiok atrebituak,
ontzi txikian ainbeste lagun,
nai zutenak serbituak;
karga aundiak errebentatu,
ezin geio sufrituak,
zetozen amasei ortatikan
beratzi dira ituak.
- 5/ Ondo pensatzen jarri ezkerro
da gauza negargarria,
familiya askorentzako
egun artan etorria;
euren umiak aiñ estimatu
an utzi biar bizia,
arrezkerotik dago lutuaz
Erandio'ko erria.

6/ Zori gaiztoko egun txarrian
orduan gertatu ziraden,
euren biziyak entregatutzen
asko pensatu ez arren;
iñork eztaki eriotzia
nundikan nola datorren,
ta gutxiago ondorendikan
zer justizia dakarren.

7/ Mundu ontatik oietxek dira
uste gabe juandakuak,
bere eskuan artu daitzala
arren gure Jaungoikuak;
dibersiuaren billa jua da
biziya emandakuak,
orlakuari esan leikiyo
martiri benetakuak.

8/ Onezkero ezta erremeiorik,
arek mundutik jua zian,
etzeite lagun geio gertatu
orlako eriotzian;
itxasuarekin peliatuta
azkenian ere il zian,
negarra franko eragin dute
bakoitzak bere etxian.

- 9/ Bizi geranak mundu onetan
kontuan egon gaitezen,
al dan guztian begiratuaz
nundikan nora gabiltzen,
Jaungoikoari erregutuaz,
iñundik al baliteke izen,¹
desgrazia artan gertatu diranak
zeruan gerta deitezen.
- 10/ Erregututzen zaitugu ondo,
zeruko Ama Birjiña,
santa guztiyen agintariya,
aingeruen erregiña:
konsideratu martiriotik
euken apartau eziña,
aien anima salbatzeko
egiñ zazu alegiña.
- 11/ Kristau oiek gertatu ziran
estadu negargarrian,
euren bizia eman biarra
itxasuaren erdian;
Jesus maitiak sartu daitzala
zeruetako glorian,
antxen gozatzen egon deitezen
eternidade guzian.

¹ Bertso-paperak: *izan*. Baiñan bertso auen euskera bizkaieratzen asia da, eta Bizkaia'n, *izen* esaten da askotan beintzat. Ta bertsolaritza aozko literatura baita eta punturako emen ala bear baita, *izen* idatzi degu.

12/ Tentaziyua ibillitzen da
okasiyuaren billa,
pekatuetan dauan anima
arkitutzen da debilla;
Jaungoikoaren seme guztiyak
izan biar du umilla,
beste gauzarik eztet desiyo:
ala gertatu dedilla.

* * *

Garai artako egunkariak oso zeatz ematen dute gertaera onen berri. Bilbo'koak zer esanik ez. Donostia'ko *La Voz de Guipúzcoa*'tik artu ditugu puska auek:

Jueves, 1.º marzo 1906.

LA CATASTROFE DE ERANDIO

(Desde Bilbao. Por teléfono. De nuestro corresponsal.)

Bilbao, 28, 10,45 n.

«... No son doce, como se decía ayer, sino nueve el número de víctimas ocasionadas por la catástrofe, cuyos nombres se expresan a continuación:

Ignacio Zarandona, de 44 años y casado. Era éste el dueño de la embarcación causante de la catástrofe.

Román Martín, de 24 años de edad, soltero y maestro zapatero.

Emeterio Blanco, de 24 años de edad, soltero y oficial zapatero del taller de Román Martín.

Epifanio Michelena, de 19 años de edad, soltero y carpintero de oficio.

Félix Jiménez, de 17 años de edad, soltero y panadero de oficio.

José López Avila, de 24 años de edad, soltero, martillador de oficio, que trabajaba en los talleres de Cortadi, Deusto.

Teodora del Olmo, de 20 años, soltera y oficiala de sastre.

Romualda Goicurría, de 17 años, soltera.

Isidora Echeverri, de 20 años, soltera.

Se dijo ayer que se había ahogado una mujer con dos niños, pero parece que no es cierto, afortunadamente.

Se sabe que embarcó en el bote San Blas una mujer con dos criaturitas, pero, según parece, al ver aquélla que había muchos viajeros en la embarcación y temiendo lo que después ocurrió, abandonó la lancha y volvióse a tierra.

Los que se han salvado de la catástrofe son los siguientes:

Juan Trota, de 23 años, soltero y de oficio ajustador.

Romualdo Goicoechea, de 24 años y calderero de oficio.

Pedro Zubizarreta, de 24 años y segundo maquinista del vapor El Salto.

Gregoria Hormaza, de 18 años, soltera.

Hipólito Guinea, de 25 años y soltero.

Félix Begoña, de 26 años y primer maquinista.

Y Mariano Iturbe, de 22 años de edad y soltero también.

En el pueblo de Erandio reina general consternación por la catástrofe.

... Mariano Iturbe, uno de los naufragos supervivientes, refiere el suceso de la siguiente forma.

Dice que vio a varios jóvenes que se embarcaban en un bote y corrió hacia él para embarcarse también, lo que hizo poco después.

Como eran ya bastantes los viajeros, indicaron al patrón que pusiera en marcha el bote, pero aquél esperó a que embarcasen otros tres o cuatro individuos más.

Poco después deslizóse la embarcación, no sin que no nos hiciésemos cargo del peligro que corríamos, pues al efecto, nos colocamos de pie en la embarcación, en previsión de un accidente.

Al entrar el bote en el canal de la ría, observóse que ésta llevaba gran corriente.

El agua empezó entonces a penetrar en el bote por la parte de popa, haciendo que la embarcación caminase basculando.

Al poco tiempo, las mujeres que iban en la popa, hallábanse ya flotando en el agua.

Los que estábamos en proa íbamos cantando, y nuestros cánticos abogaban las voces de auxilio que pedían los viajeros de popa.

Pero cuando nos enteramos de lo que ocurría nos lanzamos al agua y el bote se inclinó de la parte de popa, que es donde quedó todo el peso, comenzando a hundirse.

El barquero continuó remando, pero cuando ya le llegaba el agua a la boca abandonó los remos y se hundió con la embarcación y los demás viajeros.

Entretanto promoviése una confusión espantosa, no sabiendo ninguno qué hacer.

En esto vino un bote de auxilio y me salvó, añadía Mariano Iturbe.

Refirió luego los esfuerzos que realizó Juan Trota para salvar a su novia, Teodora del Olmo.

Durante mucho tiempo luchó con la corriente para salvar a Teodora, pero rendido ya la soltó.

Repuesto algún tanto vio un cuerpo que se sumergía y se dirigió a él creyendo que era el de su novia Teodora, convenciéndose luego que la que salvó era Gregoria Hormaza.

La infeliz Teodora hundióse en el momento en que Juan Trota la abandonó.»

Ildakoen illetak Erandio'n egin ziran, Martxoaren 6'an.

(1908)

ARRAIZALIEN BIZITZA

Amairu bertso auek, bi tokitatik eskuetaratu ditugu: Donostia'n Aiete'ko Oriamendi base-rrian jaio eta gaur bertako Irola'n bizi dan Segundo Kalonje bertsolariaren eskutik eta Oxford'ko *Bodleian Library*'tik.

Bertso-paper bat da, bietan argitaraldi bera, *Rentería: Tip. Vda. Valverde* moldiztegiak plazaratua.

Izenburua, *Bertso Berriak* edo olakorik bat ere ez eta or goien ezarri deguna du paper onek. Baiñan kontu: *arraizalien* esaten du; ez *arrantzalien*. Ta berdin bertsoetan ere, iru aldiz edo.

Egillearen izen-abizenak azken bertsoak esaten dizkigu: Zipriano Lertxundi. Ez dakigu ez nor eta ez nungoa zan, ez au beste bertso-saillik iñoiz jarri zuan, ez ezer ere geiago.

Urtea, 1908, lenengo bertsoak ematen digu. Baiñan egunik ez da esaten. Urte orretan, Maia-

tzaren 24'an, illunabarrean, galerna bat atera eta eriotz ta kalte aundiak egin zituan.

Galerna orixe izango da, bearbada, bertso auen itxas-ekaitza; urte artan besterik izan zanik ez degu guk beintzat irakurri edo ikasi. Ala ere zerbait duda egin diteke, udara eta San Juan eguna ere aitatzen baitira.

Fermin Imaz bertsolariak ere, bertsoak jarri zituan maiatzaren 24'eko galerna orri buruz. Bertso oiek aspaldi argitaratuak ditugu: *Auspoa*, 24. Aurretik, itxasoaren zakarraldi orren berri ematen genduan. Nai duanak, antxe irakur dezake.

«Ondarrua'ko gizonak asko» galdu dirala esaten du laugarren bertsoak. Erri orretatik amairu arrantzale ito ziran. Oietako bat, Jose Manuel Imaz bertsolaria, ogei ta amabi urterekin.

- 1/ Milla pasata bederatzi eun
zortzigarrengo urtia,
bertso batzuek asmatutzeko
euki det borondatia,
ikusirikan udara txarra
batzuentzako egitia,
desgrazikua izandu dala
Santander'ako partida,
atunetako gizon gaixuak
iruki zuten kaltia.

- 2/ Nekazariya legorrian da
arraizalia itxasuan
jan biarrakin egiten dute
mundu ontako plazuan;
artzen diraden pena ta susto
beti gogotan jasuan,
al balitz danak ipinitzia
alkarren gainka pisuan,
zer kontatua gertatu're bai
bakoitzai bere auzuan.
- 3/ Urte guzitan juaten dirade
montañesako kostera,
San Juan eguna inguru ortan,
udara pasatutzera,
bere familiyak mantentzeko
dirua irabaztera,
negargarriya batzuentzako
beren buruak uztera,
libratu dana larri ibilli
berriz legorra ikustera.
- 4/ Ondarrua'ko gizonak asko,
Mutriku eta Donostiya,
bermeotarrak zer esanik ez,
dana txalupaz josiya;
itxas kanpuan gertaturikan
denbora txar itxusiya,
ainbeste enbarkaziyo triste
galdu biarra etsiya,
batzuek nolabait libratuta
bestiak galdu biziya.

5/ Beren andre ta arrebak igual
pariente guzi negarrez,
gauza oiek orla gertatu eta
lasai egoten ezta errez;
deskalabruak pasatzen dira
uretan eta legorrez,
baleki batek zer gauza txarrak
etorri biar dun aurrez,
aiko giñake bata bestiari
zar eta gazte agurrez.

6/ Ainbeste txalupa eta bapore
beren santu-izenakin,
batzuek buelta oso emanda
bestiak urez betiakin,
naiz urrutira klaru ikusi
probetxurik ez mendiakin;
ama batzuek gelditu ziran
bost eta sei aur txikikin,
sokorritzeko saiatu ziran
teatro eta festakin

7/ Modu orretan izandu ziran
suskriziyuak irikitzen,
estudiantinak kalietan da
aientzako diru biltzen;
Bilbao'n ere partidua ta
nobillada da jokatzten,
Donostia'ko soziedadiak
igual ziraden portatzen,
saiatu ziran famili aiek
al dan ondona anparatzen.¹

¹ Bertso-paperak: *al dan ondo*. Moldiztegi-utsegite bat noski; 10/8'an ere *al dan ondona* esaten baitu.

- 8/ Irakurrita jakindu gendun
periodiko edo papera,
lutua zala pertsona askontzat
kosta Kantabri aldera,
txalupa asko eta bapore
galdu zirala batera;
zein ote ziran jendia larri,
arrazoia nai atera,
makiñat pena zabaldutzeko
izan da aurtengo kostera.
- 9/ Dudarik ezta egitia bat
gauza abekin penatu,
len bizi ezin dan pobriari
zer eiten zaion allatu:
zorioneko itxaso aundi,
eiten dezuna tragatu;
bagiña danak legorrerako
lanikan ezin billatu,
modu orretan uretan dira
gizon asko're saiatu.
- 10/ Aita bat orla faltatutzian
aurrak dira akordatzen,
mantaletikan amai elduta
noiz etorriko galdetzen;
erantzun nai ta soltatu ezin,
negarrez dago urtutzen,
aழுuetako emakumiak
al dan ondona laguntzen,
gauza au bañon tristiagorik
ez det ezer e billatzen.

- 11/ Batzuek orla aitzen dirade
arraizaliai bengatzen,
zer peligro ta arriskua duten
eztute konsideratzen;
lurren gañian dagon sastia
segurua da bizitzen,
denboralerik txarrenakin e²
aitzen da lasai kantatzen,
itxas kanpuan txalupak buelta,
gizonak antxen itotzen.
- 12/ Alde batera pentsatu eta
ori da arritzekua:
itxaso onak gusto ematen,
txarra da bildurtzekua;
legorretikan muralla-iskiñan
jendia jostatzekua,
itxas kanpuan denbora txarrak
iñoi ez barkatzekua,
persona askokin igual galdutzen
naiz aundia izan barkua.
- 13/ Amairugarren bertsu onekin
orain egiten det bukatu,
Zipriano det izena eta
Lertxundi det eskribitu;
galdu ziraden gizon guziyai
egiñikan erregutu,
zeruko Aita Eternuari
nai diot ondo kunplitu,

² Bertso-paperak: charrenaquinde.

nai duenian guri otsegi .
bere eskutikan gaitu,
agur danari, arraizaliak,
suerte on batez segitu.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK


1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, Au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I. (*Aitua*).
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan. (*Aitua*).
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak. (*Aitua*).
10. Errege eguneko bertso sayoa. (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren. (*Aitua*).
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I. (*Aitua*).
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat. (*Aitua*).
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun! (*Aitua*).
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak. (*Aitua*).
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962). (*Aitua*).
23. Aizkolariak. (*Aitua*).
24. F. Imaz: Bertso guziak. (*Aitua*).
25. A. P. Iturriaga: Jolasak. (*Aitua*).
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zala-partak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak. (*Aitua*).
28. B. A. Mogel: Ipui onak. (*Aitua*).
29. T. Alzaga: Burruntziya. (*Aitua*).

30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria. (*Aitua*).
31. M. Soroa: Baratzan. (*Aitua*).
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza. (*Aitua*).
33. M. Elizegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua. (*Aitua*).
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak. (*Aitua*).
38. S. Salaverria: Neronek tirako nizkin. (*Aitua*).
39. Bertsolariak: Amar urteko bertso-paperak. (*Aitua*).
- 40-41. J. R. Zubillaga: Lardasketa. (*Aitua*).
42. Uztapide: Noizbait. (*Aitua*).
43. Bertsolari-txapelketa. (1-I-1965). (*Aitua*).
44. P. Larzabal: Hilla esposatu. (*Aitua*).
- 45-46. J. M. Satrustegui: Bordel bertsolaria. (*Aitua*).
47. P. M. Urruzuno: Iru ziri. (*Aitua*).
48. P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe: Teatro zaarra. (*Aitua*).
- 49-50. A. Zavala: Pello Errotaren itzala. (*Aitua*).
51. P. M. Urruzuno: Ur-zale baten ipuiak. (*Aitua*).
- 52-53. G. Anduaga: Bertso-bilduma.
54. A. Zavala: Pernando Amezketarra bertsolaria. (*Aitua*).
55. Basarri: Laugarren txinpartak. (*Aitua*).
56. A. Zavala: Udarregi bertsolaria. (*Aitua*).
- 57-58. C. Beobide: Asis'ko Lorea. (*Aitua*).
59. A. Zavala: Axentxio Txanka bertsolaria.
60. A. Zavala: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari. (*Aitua*).
61. A. Zavala: Gaztelu bertsolaria.
62. A. Zavala: Zarautz'ko Zaldubi bertsolaria.
- 63-64. A. Zavala: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
65. J. M. Satrustegui: Luzaide'ko kantiak. (*Aitua*).
66. A. Zavala: Iru bertsolari. (*Aitua*).
67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967). (*Aitua*).
- 68-69-70. A. Zavala: Alzo'ko Imaz bertsolaria.
- 71-72. A. Iturriaga: Ipuiak.
73. A. Zavala: Iru anai bertsolari. (*Aitua*).
- 74-75. A. Zavala: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
76. A. Zavala: Alza'ko bertsolari zaarrak.
- 77-78. A. Zavala: Paulo Yanzi ta bere lagunen bertsoak. (*Aitua*).
- 79-80-81. A. Zavala: Lexo bertsolaria.

82. *A. Zavala*: Juan María Zubizarreta bertsolaria. (*Aitua*).
83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak. (*Aitua*).
84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
85. *Xalbador*: Ezin bertzean. (*Aitua*).
- 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsolaria.
- 88-89-90. *A. Zavala*: Xenpelar bertsolaria. (*Aitua*).
91. *A. Zavala*: Txapel bertsolaria. (*Aitua*).
92. *I. Alkain*. - *A. Zavala*: Alkain aita-semeak.
93. *A. Zavala*: Zubeltzu ta Saikola bertsolariak.
94. *A. Zavala*: Atano ta Estrada bertsolariak. (*Aitua*).
- 95-96. *A. Zavala*: Azkoitia'ko zenbait bertsolari.
97. *A. Zavala*: Bidasoa aldeko bost bertsolari.
- 98-99. *Inozentzio Olea*: Goierriko lorak.
100. *Manuel Lasarte*: Bertso-mordoxka. (*Aitua*).
- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
- 103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi-gañetik.
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela. - Ezkioko ta Segurako itxuak.
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
- 109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak.
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
112. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria.
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu, Lexoti ta Balentin bertsolariak.
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari.
- 117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari.
- 120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
- 123-124-125. *A. Zavala*: Zampirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).
131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.



1009647
B0-2976



B